



ARGIA

JAIOTZETIK INTERNETEN DABILEN BELAUNALDIA

ZER OPARITZEN DIEGU MUGIKORRAREKIN BATERA?



02545
9 778402 139093

4. argitaraldia

BIZI BARATZEA

garaian garaikoa garaiz.

Jakoba Errekondo

Zure baratzea sortzeko, moldatzeko eta eusteko behar duzun liburua



Eskatu zure liburua

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

23 €

19,50 €

harpideentzat

AURKEZPEN-SOLASALDIAK HERRIZ HERRI

Antolatu zure herrian

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu:

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545

 **ARGIA**
argia.eus

**BIZI
BARATZEA**
www.bizibaratzea.eus


184 orrialde (21,5x25 cm)

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Fukushima+6, itzuli zure herrira, dena OK dago

IRITZIAK

- 17 June Fernández
- 18 Imanol Alvarez
- 19 Jakes Bortairu
- Itxaro Borda
- 20 Ruben Sanchez Bakaikoa



Juan Martin Elexpurrekin hitz egin dugu Iruña-Veleiako auziaz.

(ARGAZKIA: SOS IRUÑA-VELEIA)

- 36 BIZI BARATZEA
- 38 ARGIA KOMUNITATEA
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: SIMONA LEVI
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DEPOSIT PHOTOS
MUNTAKETA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Miriam Aleman: "Neskak indartsu datoz baina gizartearen begiradak boterez husten ditu" / Danele Sarriugarte Mochales
- 22 | Adingabeak eta mugikorrak: Internetekoa ez da bizitza birtuala / Jon Torner Zabala
- 28 | Futbola Italian: Multinazionalen interesak zaletuen gainetik / Xuban Zubiria
- 30 | Euskal elkargoa, posibilismoaren bidean / Mikel Asurmendi
- 32 | Juan Martin Elexpuru, SOS Iruña-Veleia elkarteko kidearekin solasean / Miel A. Elustondo
- 35 | I. Gonzalez eta M. Ruiz, 40 urteko autismodun semearen gurusoak / Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
- 42 | Hobe nuela ezkondu / Itxaro Borda
- 46 | O. J. Simpson auzia telesailetan: AEBetako beltz zurienari buruzko maisulana / Gaizka Izagirre

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Ane Eslava, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Lukas Barandiaran, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruña. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoak egin, ARGIA argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (43 € urtean).





PANORAMA

Iberdrolatik deskonektatu

Gaindegiaren datuen arabera, 2014an Euskal Herrian 131.000 lagun energia pobrezian bizi ziren eta EAEko 87.000 pertsonak ezin zuten eduki etxea tenperatura egoki batean. Herritarren lehen mailako behar bat pribatizatu eta negozio bilakatu izanak eragin du, besteak beste, 2003tik hona argindarraren prezioa bikoiztea. Iberdrola da energiaren salerosketaren pagotxaren onuradun handiena. Endesarekin batera Garoñaren jabea da. Energia nuklearraren aldeko lobbyko kide nagusia da eta ondo baliatu du ate birakariaren ufadak alde batetik bestera bidaltzen dituen politikari ohien kabinatiko bat izateak. Egoera horren salatzeke, era alai eta koloretsua aukeratu zuten hainbat lagunek hilaren 2an. Bilboko Iberdrolaren dorrea okupatu eta kontzertua egin zuten barruan, herritarrek multinazionalatik deskonektatzera animatzeko.

Argazkia: Dani Blanco · Testua: Axier Lopez

ETB1eko "Euskalduna naiz, eta zu?" saioan espainiarrei buruz esandakoek zalaparta sortu dute.

t "Espainiatik 'Euskalduna naiz eta zu'-ren harira iristen ari diren erreakzioek ere ez dute ba gehiegi laguntzen estereotipoak deseraikitzen..."

@samaravelte

t "Saioan, batez ere euskal herritar/ euskaldunetz egin dute barre: espainolez barre egindakoan etorri da arazoa"

@AnderGurusa

t "Saioa ez zitzaidan gustatu eta molestatu egin ninduen. Baina maila berean edo gehiago atsekabetzen nau bertan parte hartu zutenen harrikatze publikoak"

@mambanegra

t "'8 apellidos vascos' filmarekin barre egin zuten horiexek dira 'Euskalduna naiz, eta zu?' saioagatik Miren Gaztañagaren burua eskatzen dutenak"

@mambanegra



DANI BLANCO

Mozal Legea garaitu dugu

Argia

ARGIAko kazetari Axier Lopezi ezarritako isuna bertan behera utzi du Espainiako Gobernuak, Javier de Andres EAEko Espainiako ordezkariaren bitartez. ARGIAk isunari ezarritako helegitearen ondorioz, martxoaren 13an epaiketa egitekoa zen Gasteizen. Baina, epaiketa egin gabe, ARGIAk irabazi du auzia.

2016ko martxoaren 3an Espainiako Poliziak kalean egindako operazio baten berri emateagatik ezarri zioten isuna ARGIAri. Ordutik Espainiako Gobernuak urtebetez defendatu ditu ARGIAren aurkako zigorra eta isunaren arrazoiak. Erabateko bakardade politikotik, kontra egin die Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko kazetari elkarte guztiek, adierazpen askatasunaren eta prentsa askearen aldeko nazioarteko eragile askok eta Espainiako Arartekoak berak esandakoari. Epaiketa egiteko egun batzuen faltan, amore ematea erabaki du Espainiako

Gobernuak. Isuna indargabetzeko forma arazoak argudiatu dituzte. Alegia, isuna jartzean ez zutela behar bezala argudiatu. Urtebetez guztiz kontrakoa itsu-mutu-gor defendatu ostean, nahiago izan dute isun zehatz honen aurrean amore ematea, Mozal Legea epaitegietan ezbaian ikustea baino.

Mozal Legea erabiliz kazetari bati isuna jarritako lehen kasua da gurea. Baita lehen garaipena ere. Poliziak lanean grabatzea herritar eta kazetari guztion eskubidea dela behin betiko argi uzteko aurrekari garrantzitsua izango da. Mozal Legearen amaiera gertuago dagoela esan dezakegu.

Erreportaje berezia datorren astean

Datorren astekarian, gaiari buruzko erreportaje berezia argitaratuko dugu gurean. Bestalde, albiste honekin zuzendu nahi izan dugu aste honetako *Komunitate* orrian (39. orrialdean) iragarri dugun epaiketa ez dela egingo azkenean, orrialde hori itxi genuenean albiste hau jaso gabeak ginen-eta.

"Gure helburua da ama-alabak etxera bueltatu daitezela batera"

SARA MAJARENAS PRESOAREN SENIDEAK

2. gradua eman diote Majarenasi, Madrilgo harrera etxe batean alabarekin bizi dadin. "Pozik gaude, baina erdizka. Ama-alabak ez banantzea lortu dugu, hori zen lehentasuna, baina gure helburua da etxera bueltatu daitezela batera eta bai amak bai alabak bizimodu ahalik eta normalena berreskuratzea. Sarak 3. gradua lortzeko lege-baldintza guztiak bete ditu. Gainera, ez du 12 urtean zigorririk izan, bide armatuari uko egin, biktimei barkamena eskatu eta damua erakutsi du. Ez al zen hori eskatzen ziotena?". **PUBLICO (2017-03-03)**



Ezagutzen ditut
 neska
 zakildunak,
 bai eta mutiko
 pottottadunak
 ere ...

eta helduetan,
 andre pito
 nahiz
 gizon alu
 andana



CK



“Ongietorria” Getxoko Ibarbengoako aparkalekua eraikiko duen enpresari

Ainhoa Ortega Bretos

@ob_ainhoa

Getxoko Udalak gutuna bidali die Tosu landa inguruan bizi diren auzokideei, trenbidearekiko paralelo doazen lurrak martxoaren 1erako libratzeko eskatuz. Tosu Betirako plataformak obrak egingo dituen enpresari ongi etorria emateko parodia estatutu du egun horretan bertan, azkenean hondeamakinari agertu ez den arren.

“Ongi etorri Mister Florentino” lelopean egin dute parodia. Florentino Perez baita Ibarbengoako aparkalekua eraikiko duen Geocisa enpresako jabea. Gosari herrikoia egin ostean, trajez eta galaz jantzita errepide ondoan kokatu dira pankarta eta hainbat karteekin. “Zelai berdeak nahi badituzu, joan zaitez Getxoko Golf Klubera” eta “Hippy gutxiago eta porlan gehiago” oihukatu eta Florentino Perezen harrera irudikatu dute.

“Imajinatu al duzue Andra Mari osoa porlanez estalirik?”

Algortako tabernetara gerturatu eta parodiaren baitako komunikatua ere banatu dute herrian zehar. Bertan irakurri daiteke: “Itxaronaldi jasanezin baten ostean, eta lau hippy ziztrinen traben gainetik, behingoz sartu dira Ibarben-

goako parking desiratua egingo duten makinak, eta bazen garaia, zeren eta, auzokideak oraindik konturatu ez diren arren, hainbeste etekin ekonomiko ekarriko die Getxo, Uribe Kosta, €uzkadi eta mundu osoari. Eta hau hasiera baino ez da! Imajinatu al duzue Andra Mari osoa porlanez estalirik? Ez al zaizkizue buroian sartzen horrek ekarriko dizkigun onura guztiak? Itzela izango da! Eta argi ibili: Parkinga egiten ez badugu, kandelapean azak jaten amaituko dugu. Eta ezetz jakin onena zer den? Bada, auzokide batek ere ezin izango duela ahoa ireki! Azken finean, horretarako bozkatzan dugu EAJ! Zatoz datozen egunetan obrak bisitatzera! Kolosala izango da!”

Obrak edozein momentutan has daitezkeela iragarri dute auzokideek. Hurrengo egunetan ere, zaintzak egingo dituzte Tosu Betirako plataformako kideek.



EKONOMIAREN TALAIAN

Osakidetza, ‘ETT’ handiena Euskal Herrian



Juan Mari Arregi

Urkullu, bere gobernua eta bere alderdia egunero ari dira erakusten zer den beraientzat hazkunde ekonomikoa, enplegu sorrera eta ongizate estatua mantentzea. Hortik pentsa dezakegu euren politika ekonomiko eta sozialen filosofia ez dela Rajoyk ezarritakoaren ezberdina. Prekarietatea, behin-behinekotasuna eta desoreka dira haien ezaugarriak.

Joan den astean zutabe honetan azaldu genuen “euskal ongizate estatua”. Orain, datu lotsagarri batzuk nabarmenduko ditugu, EAEko enplegu publikoa zein eskasa den erakusteko. Sindikatu baten salaketaren ondorioz, jakin berri dugu Gipuzkoan 53 eta 60 urteko Osakidetza erizaintzako bi laguntzailek, hurrenez hurren, behin-behineko 215 eta 197 kontratu sinatu dituztela azken lau urteetan. ELAren ustez Osakidetza Euskal Herriko aldi baterako lanerako enpresa handiena da (ETT, gaztelaniazko hizkiz), 14.000 bitarteko langile baititu eta %40ko behin-behinekotasuna. Zenbat behin-behineko kontratu daude Eusko Jaurlaritzako eta foru erakundeetako beste sailetan? Bi langile horiek hainbeste kontratu pilatu badituzte, ez al dira euren lanpostuak beharrezkoak osasun publikoak ongi funtzionatu dezan?

Enpresa pribatuen mesederako ehunka milioi euro bideratzen dituztenek AHT edo estadio publikoen proiektu anti-ekonomiko eta anti-sozialetara, zerga-erreforma justua aurrera eramaten ausartzen ez direnek, ezin dute baliabide ekonomikorik ezaren aitzakia jarri enplegu prekarioa mantentzeko. Esan dezatela garbi: hazkunde ekonomikoa eta zerga-erreforma enplegu prekarioaren bizkar eta patronalaren zerbitzura? Ez Osakidetza eta ez Jaurlaritza ezin litezke ETT bihurtu, baina gaur egun Euskal Herriko handienak dirudite.



TXAPA-HOTSA

Auzolana pilotaleku autogestionatua eraitsi ez dezaten

GASTEIZ. 300 lagunek baino gehiagok bat egin dute Gasteizko Auzolana pilotalekua kudeatzen duen Txapa-Hotsa asanbladaren deialdiarekin. Udal Gobernuak frontoi autogestionatua eraistearren kontra azaldu dira Alde Zaharreko auzokideak, frontoia birgaitzeko auzolanetan parte hartu dutenak, herri bazkariez gozatu dutenak, feministak, auzogintzan diharduten kolektiboak, ekologistak, euskaltzaleak, migratzaileak, presoan aldekoak, sindikalistak, dantzariak, esgrima zaleak... Udal Gobernuak bakarrik dagoela adierazi nahi izan dute.

Urdaibai dragatzeak ekosistema kaltetu du

Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

2003an gizakiak egindako esku-hartzea aztertu eta *Journal for Nature Conservation* aldizkarian plazaratu ditu emaitzak Aranzadiko ornitologia sailak: Urdaibaiko ekosistemak berreskuratzeko gaitasuna galdu du.

Dragatzeak

43 urtez etengabe dragatu da itsasadarra. 2003ko esku-hartzearen ondorioak aztertzeke *-Mundakako ezker olatua* desagerrarazi zuen bera-, urte horren aurretik mostak hartu eta 2016 arte protokolo bat jarraitu dute ikerlariek.

Hegazti gutxiago

Itsasora isuritako hondarra barrualdera zabaldu da ekaitzengatik eta geruza lohitsuak estali du. Ondorioz, limoetako zizare eta ornogabeez elikatzen diren hegazti espezieen populazioa gutxitu da nabarmen, esaterako txirri arruntarena.

Bere onera noiz?

Hamahiru urte geroago, itsasadarra oraindik ez da bere onera etorri, hondar kopuru handia baitago oraindik (%38tik %64 izatera igaro da). Are larriagoa dena, litekeena da Urdaibaiko eremu horietan hegaztien kopuruak ez berreskuratzea.

KLIMA ALDAKETA



26

urtez, klima aldatetaz ohararazten zuen dokumentala gordeta izan du Shell petrolio konpainiak, *The Guardian* egunkariak eskuratu eta argitaratu duen arte.

22

milioi dolar gastatu zituen 2015ean Shell-ek lobby lanetan, Europako energia berriztagarrien helburuak bete ez zitezen.



ITSASOREN DESANEXIOA GELDI

Itsaso Ezkioetik banantzeko prozesua bertan behera utzi du Espainiako Gobernuak, 5.000 biztanle ez dituela argudiatuz. Gipuzkoako Aldundiak erantzun dio gai honetan eskumena eksklusiban Aldundiarena dela eta epaitegietara jotzea aztertuko duela.



OSTIKOA MATIXIMOARI

Lau elkarre feministak Jorge Cremadesen emanaldia kentzeko eskatu zioten Billboko Campos antzokiari, umoregileak eduki matxistak zabaldu ohi dituelako sare sozialetan. Ikuskizuna atzeratu egin dute eta momentuz ez dute data berriak iragarri.



JASO, GREBAN

Itsasondoko Jaso enpresako langileek 16 hilabete daramatzate negoziatzen, lan baldintza duinak bermatuko dizkien hitzarmena lortzeko, baina egoerak blokeatuta jarraitzen du. Hiru hilabete egin dituzte greba mugagabe partzialean.

Fukushima + 6: fini dira kalteordainak, itzuli zure herrira, dena OK dago



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Apirilaren 1etik aurrera Fukushima inguruko herri gehienetako biztanleei kenduko zaie derrigorrez ebakuatzeko agindua. Esan nahi ote du arriskua amaitu zaiela? Ez: galduko dituzte ebakuatzeagatik diru-laguntzak eta Estatuak lagatako etxoletan bizitzeko eskubideak, kutsatutako auzoetara itzuli nahi ez badute beraien borondatez izango da. Horrela normalizatzen da istripu nuklear baten biharamuna.

Sei urte geroago, Tokioko agintariak erabaki dute Fukushima Daiichiko zentralaren istripuak hurbilen harrapatutako jendeak nahikoa laguntza jaso dutela. Estatuak ez dago dirua alferrik galtzeko: lau errektoreak oraindik isurtzen duten erradioaktibitatea ezin kontrolatuz jarraitzen dute, TEPCO konpainia kiebra zorian, istripuaren faktura gero eta astunago... Martxoan amaitutakoan, nola bizi behar dute 2011n Fukushima inguruetatik ebakutzera derrigortutako jendeak?

Japoniako agintariak erabaki dute urtean 20 miliSiwert (mS/u) arteko kutsadura gauza eramangarria dela. Bide batez esanda, Europar Batasuna *Euratom* arautegiarekin basakeria bera onartzen da, baina apenas entzuten den inoren kexarik European. Fukushima inguruak berriro bizitzeko moduko eremu izendaturik, herritarrek ez daukate aitzakiarik etxera ez itzultzeko. Horien dramari jarraipena egiten dio *Nos Voisins Lointains 3.11* [Urrutiko gure bizilagunak] blogak, Kurumi Sugitak frantsesera itzultzen dituela Fukushima inguruetako herritarrek japonieraz sarean argitaratutako lekukotasunak.

Esaterako, Saki Okawara andreak urtarilaren 16an Facebookeko bere orrian kontatu du nolaz eraman dituen Kawauchi herrira 200 puntuzko arropa eskuz eginak Tokiotik boluntario batzuek bidali dizkietenak hondamendiak kolpatutako jendeen elkartasunez. Kontatzen du ere Kawauchin ebakuazio

agindua 2012an ezabatu zuela bertako alkateak. Ondorioz, abuztu hartan bukatu ziren derrigorrezko ebakuazioagatik kalte-ordainetako batzuk. Baina legez arazorik ez egoteak ez zuen esan nahi benetan ez zegoenik: hilabete gutxiren buruan Kawauchitik ihesi Koriyaman aterpetutako herritarren elkarteko buruak internetez laguntza eske larria zabaldu zuen, 2013ko negua gainditzeko jendeak falta zituela arroza eta janziak bezalako oinarritzko gauzak. Horrela ezagutu zituen Okawara andreak Kawauchiko jendeak.

"Ebakuatzeko agindua indargabetzen denean, etxola probisionaletan bizi den jendeak galtzen ditu horiek pagatzeko dirulaguntzak, legearen arabera derrigortuta ez baina nahi dutelako bizi baitira herritik urrun. Benetan ebakuatuak izan arren, legez bilakatzen dira *jishu hinansha*, 'auto-ebakuatuak'". Orain horiek ere harrapatuko ditu Fukushima departamenduko agintariak etxola probisionalentzako diru-laguntzak eteteak.

Etxola probisionaletan bizi diren kawauchitarren lehendakari Atsushi Shidak Facebooken kontatu duena ere itzuli dute *Nos Voisins Lointains 3.11*en. Dio Shidak auzo probisionalotan bizi diren jendeen %90ek bertan segitu nahi duela. Zertarako itzuli sorterrira han ez bada inor eta ezer gelditu?

Jende gazteak alde egin zuen istripuaren ondotik, nork nahiko du familia eremu kutsatu batean haztea? Zaharretatik ere, ahal zutenak urrutiko hirietara



joan dira seme-alaben ondoan bizitzera. Behin-behineko etxolotan geratu dira 80 eta 90 urtez gorako jendeak, baka-rrak bezala bikoteak, asko larriki gaixotu edo ahulduak, soinez ez bada burutik. "Etxola probisionalotan bizitzea -dio Shidak- gero eta gogorragoa zaigu hemen gaudenoi baina are zailagoa litzateke hemendik kanpo bizimodua berriro antolatu beharra. Ziurrenik apiriletik aurrera are gehiago murriztuko dizkigute zerbitzuak. Hemen bizitzea zahar etxe batean bizitzea da baina laguntzaile profesionalik gabe".

Boluntarioak atomoen bila

Oraindik 100.000tik gora dira Fukushima hondamendi nuklearragatik urrundutako herritarrak. Horietako askok galduko dituzte laguntzak martxoan bukatzearekin. "Guk -idatzi du Kawauchitik ebakuatuen buruzagiak- sei urteotan ikasi dugu ebakuazioa oraindik asko luza daitekeela eta ingurumenaren kutsadura urte askoz luzatuko dela, mendeetan iraungo duela".

Txanponaren beste aurpegian dauke derrigor etxeratutako jendeak, erradioaktibitatez kutsatutako inguruan bizitzera behartuak. Txernobyl inguruetako biztanleek 30 urteotan bizi duten tragedia dastatzen dute orain Fukushimaek: nolaz biziraun duela urte gutxi arte ezin onartuzkoak ziruditen erradioaktibitate kopuruaren artean?

Auzolanean, berriro. Pierre Fetet zientzialari eta lider antinuklear zaharrak



'Fukushima Monitoring Project' taldeak Facebooken daukan orritik hartutako argazkian, taldeko aktibista zaharrak Minamisomako kale batean erradioaktibitatea kontrolatzen. Ezkerrekoak lurzorutik metro batera irradiazioek ematen duten kopurua neurtzen ari dira, eta eskuineko biek kopuruak dokumentatzen dituzte. Orain artean erakutsi dute agintariak aitortutakoa baino askoz kutsadura handiagoa dagoela eremuotan.

bere *Fukushima* blogean kontatu du nola bolondres talde bat bildu den Minamisoma herrian eta inguruetan lurzoruan bezala airean dagoen erradioaktibitatea neurtzeko. Taldean gazteagoak ere badiren arren, gehienak erretretan sartutako jende osatuta dago *Fukushima Monitoring Project*. Zaharrek beren gain hartu dute lana gazteak bezain sentiberak ez direlako erradioaktibitatearekiko.

Yoichi Ozawa ingeniaria buru dutela, kale, etxe, eraikuntza, baratze eta ahal duten guztietako irradiazio kopuruak neurtuz doaz, hark erakutsirik nola egin eta dokumentatu neurketak, eskuetan hartuta laborategietan usatzen diren neurgailuak: Hitachi Aloka TCS172B, Hitachi Aloka TGS146B eta Canberra NaI Scintillation Detector. Airean kontrolatzeko 75x100 metroko eremuetan

sailkatzen dute ingurua eta lurzoruko dokumentatzeko 375x500 metroko gu-neetan. Lurretik 1,50 eta 100 zentimetrotara egiten dituzte neurketak.

Independentzia osoa dute, inolako lobbyk ez die aldarazten emaitza eta metodo oso zorrotzez ari dira, publikoki erakusten duten protokolo zientifikoa jarraituz. Erradiazio kontuetan mundu mailako erreferentzia den Pierre Fettek dionez "erakunde ofizialek eredutzat hartu beharko lukete talde honen lan egiteko modua".

Ozawa eta bere erretretadun boluntario jendeak *alerta jotzaileak* dira oso rik, hedabide nagusiek eta agintariak ezkutatuak gizarteari jakinarazten dizkieten jendeak, mundu osoko herritarrok babestu beharko genituzkeenak. Fettek dioen moduan, "beren mapekin ohartarazten dituzte bertako jendeak:

'Erne ibili! Lege kontraesankorrak dau-de Japonian eta agintariak esandakoa, alegia 20 mSv/u hartzeak ez dakarrela ondorioz osasunean, ez da derrigor egia. Etxera baldin bazatozte, irradiazioak eta kutsadurak jasan beharko dituzue'. Frantzia erremedio bera ari da prestatzen, 2013/59/Euratom zuzentaraua nazioko lege ere bihurtuz; horrela hemen ere 100 mSv/u izango da muga larrialdi une batean eta 20 mSv/u ondorengo 12 hilabeteetan (eta ondoko urteetan, ezerk ez baitu bermatzen maila hori gero jaitsiko dutenik). Eta dosi horiek denei aplikatzen zaizkie, izan bularreko haur, ume edo emakume haur-dun!'

Diruak neurtzen espezialista den Nikkei konpainiak argitaratu du orain arte Fukushima 167.000 milioi euro kostatu dela. Ez ditu denak kontabilizatu. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Miriam Aleman, hezitzailea

“Neskak indartsu datoz, baina gizartearen begiradak boterez husten ditu”

Etorkizunaren hauspoa ei dira gazteak. Haiei omen dagokie belaunaldi zaharren inertziak astintzea. Eta, hala ere, sarri errazagoa eta erosoagoa zaigu haiek ere zorrotz betetzea tradizioaren mandatuak. Miriam Aleman hezitzaile eta Candela elkarteko kidearen iritziz, denok dauzkagu gure barruan hobeto bizitzeko tresnak, baina gazteak dira eraldaketa hori sortzen azkarrenak. Sexualitatearen esparruan, horretan ari dira dagoeneko.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Candela elkarteko kidea zara. Nola iritsi zinen horra?

Militantziaren ondorioz iritsi nintzen elkartera, ez ikasketen ondorioz. Kaleko feminista nintzen ni, erraietakoa, eta baneukan halako sentipen bat, eragin politiko murrizta geneukala, nolabait. Candela ezagutzen nuen jada, ez zen zehazki gaur egun dena, baina bazen gizarte eraldaketa feminista lortu nahi zuen proiektu bat, hezkuntzarekin eta bortizkeriaren prebentzioarekin lotua. Hainbat adiskide zebiltzan lanean, eta haiek adituta, bertan sartzeko gogo piztu zitzaidan. Sartu nintzen, eta nire alaba da orain.

Nola aldatu da elkarte sartzu zinenetik hona?

Ni sartu nintzenean jardun militantea zen, nahiz eta auto-enplegua sortzeko asmoa ere eduki. Orain ari garen taldea osatu zenean, berriaz, lehentasunezko

helburu bilakatu zen elkarteko lanari esker bizi ahal izatea. Lan honi denbora eskaini behar diozu, gauzak ikasi... beraz, lanbide bihurtzea bazen jarduna duintzeko modu bat. Hasieran, dirua lortzeko zerbitzari-lanak egiten nituen elkarteko lanaz gainera, eta ezin nion nahi adina tarte eskaini Candelari. Azkenean, apustua egin genuen, eta hemen-txe gaude. 2017an kooperatiba bilakatu nahi dugu, zeren, egiatan, kooperatiba baikara, elkarte baten gorputzean preso [barreak].

Zer egiten duzu elkartearen?

Gazteen atala koordinatzen dut, nerabeekin eta gazteekin lotutako proiektu guztiak, hala nola formazioak eta tailerak; *El blog de la Lore* blogaz ere neu arduratzen naiz. Bestalde, gazteekin aritzen diren profesionalak prestatzen ditut: osasungintzako langileak, irakasleak, gazteria teknikariak, gizarte-hezitzaileak...

Zeintzuk dira elkartearen zutarrak?

Oinarritzko feminismoa, hots, hobeto bizitzeko balio digun feminismoa, guztiontzat. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu gazteengana iristea, izan ere, hor-txe baitago eraldatzeko gaitasuna. Peda-

Miriam Aleman Calatayud

1983, Bartzelona (Katalunia)

Filosofia ikasi zuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, eta gero ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen ekoizpenari buruzko ikasketak egin zituen. 2009az geroztik, Candela elkartearen ari da lanean eta hezkuntza-komunitateari begira antolatzen diren proiektuak koordinatzen ditu. Candelako jardunaz gainera, kultur ekoizpenean ere badabil.



» “Gazteei nazka ematen die arautik kanpo dagoen sexuak, hots, jende eder eta gaztearen sexutik kanpoko guztiak”



gogia zehatz bat dugu abiapuntu: pertsona guztiek gordetzen dituztela beren barruan hobeto bizitzeko tresnak eta denok ohartzen garela gizarteko zerk ez digun onik egiten. Kontua da gazteak direla eraldaketan azkarrenak, oraindik ez baitute errotu egokitasun politikoa, beraz, pentsatzen dutena esaten dute, eta errazago lantzen dira estereotipoak eta usteak.

Egokitasun politikoa oztupo da, beraz?

Halako gauzak lantzeko orduan, ezin zeharkatuzko murru bat da egokitasun politikoa: helduoi izugarri nekeza zai-gu egia esatea. Adibidez, dinamika bat daukagu nork bere jarrera homofoboak identifikatzeko. Dinamika hori egitean, jendeak astakeriak azaltzen badizkizu, badakizu lanean ari direla; beste batzuek, berriz, esaten dizute: ene, ba ez zait bat bera ere okurrizten... Horrela ezin diozu arazoari aurre egin.

Eta gazteen kasuan?

Gazteekin zeharo ezberdina da. Sexu aniztasuna lantzen dugunean, nazkaren gaia jorratzen dugu asko. Homofobia emozionala deitzen diogu horri, ez baita arrazionala, ez da buruan jaiotzen, eta badago modua hori errekonozitzeko eta deseraikitzeke.

Gazte batek esaten dizu: niri ez zait axola gayak badira, baina bi gizon bibotedun elkarri musuka... Nazka errekonozitzen badute, galdetu diezaiekezu ea zerk ematen dien nazka zehazki, zeren, adibidez, 80 urteko bikote baten mu-

suak ere sortzen die hori, nahiz eta bikote heteroa izan. Beraz, egiatan nazka ematen die arautik kanpo dagoen sexuak, hots, jende eder eta gaztearen sexutik kanpoko guztiak, horrelaxe hezi gaituzte eta.

Zer metodologia darabilzue helduekin?

Lehen pertsonan egiten dugu lan eta saiatzen gara helduen begirada hausten: gazteek ez dakitela, gazteek harreman desorekatuak dauzkatela (helduenak halakoak ez balira bezala), gazteak oso matxistak direla (matxismoa neurri batean helduengandik etorri ez balitzaie bezala), eta abar.

Pentsatzen dut bullying kasuen ostean deituko dizuetela sarri eskoletatik.

Bai, eta guk beti esaten dugu prebentzioa oinarritzeko dela. Bullyinga gertatu aurretik deitu behar ligukete.

Zergatik da hain garrantzitsua prebentzioa?

Batetik, bazterketa beti dagoelako: patriarkatua hor dago, baita homofobia ere. Dagoeneko gertatu dira gauzak, kontua da zu ez zarela ohartu.

Bestetik, adibide bat ipiniko dizut. Askok gertatzen da orain, neska batek argazki sexy bat bidali diola gustuko duen mutilari edo bikotekideari edo dena delakoari eta gero tipoak Katalunia osora zabaltzen duela. Zer dago horren atzean? Emakumeen sexualitatea zigortzea, argi uztea emakumeok ez daukagula eskubiderik esparru publikoan egoteko eta

geure sexualitatea erakusteko. Gertatu ostean heltzen badiozu gaiari, neska horren disgustua instrumentalizatuko duzu, eta bestelako esku-hartze bat egin behar duzu. Gertatu aurretik lan eginez gero, ordea, jorratzen baduzu argazki bat baimenik gabe zabaltzea mina egitea dela, eraso dela, bada akaso zabaltzeko da hala ere, baina gertatzen denean, beste modu batean hartuko da, ez da oihanean jausiko. Gazteek jada kontzientzia hartua dute horri buruz, gorputzetik pasatua izango dute.

Zer-nolako sexu-heziketa jasotzen dute gazteek?

Gure gizartean tabu bat da sexualitatea, nahiz eta, aldi berean, gizarte hipersexualizatu bat izan, emakumeen aurkako indarkeria oinarri. Tailerrak egitean, sexualitatearen arriskuei buruz hitz egiten zaie gazteei. Egiatan, nerabeek sekulako premia daukate sexualitateari buruz hitz egiteko, galdetzeko, ikasteko, eta behingoagatik tailer bat eskaintzen dietenean, zera, esaten diete gaitz beldurgarri batek jota hil daitezkeela ez badute ondo egiten. Inork ez die plazera aipatzen. Gure abiapuntu horixe da: plazera, nork bere sexualitatea, eta eskubide sexualak eta erreproduktiboak.

Badakit zaila dela halakoak egitea, baina aipatuko zenidake zer-nolako egoerak ikusi dituzuen ikasgeletan, oro har?

Batzuetan izugarri baikorra naiz eta iruditzen zait bihar bertan amaituko dela patriarkatua, eta beste batzuetan, berriz,



iruditzen zait zulo madarikatu batean gaudela eta ez garela sekula aterako.

Hala ere, esango nuke neskak, oro har, indartsu datozela, eta gizartearen begiradak boterez husten dituela batik bat. Neska batek ile luze-luzea badauka eta asko zaintzen badu bere itxura, gaizki iruditzen zaigu, eta akaso neska hori oso potentea da eta oso argi ditu gauzak. Eta dena delako neskak sexu-harremanak baldin baditu, gizarte-zerbitzuetako langile batengana bidaltzen dugu zuzenean. Sexu-aniztasuna dela-eta, nerabe lgtb-ak [lesbiana, gay, transexual, bisekualak] sekulako indarrarekin datoz; sekulako oinazea pairatzen dute isilpean, baina badoaz aurrera, armairutik ateratzen dira, eta ez da gutxi. Ni neu nerabea nintzenean, inor ez zen armairutik ateratzen institutuan, handik alde egin arte itxaroten genuen. Mutilak... tira. Jarrera aldatu beharko dute noizbait.

Oro har, egonezin handia ikusten dugu ikasgeletan.

El blog de la Lore izeneko blogaz ardura-tzen zarela esan didazu lehen. Azalduko zenidake proiektu hori zer den?

Gure ametsa da gazteentzako harrera-gune bat sortzea, aurrez aurrekoa; aspalditik daukagu amets hori buruan, eta gero eta hurbilago dagoen arren, oraingoz ezinezkoa da eta hori ordezkatzeko-edo jarri genuen martxan bloga orain dela lau urte. Laguntza emateko balio du: tailerrak amaitzean, txartelak eskaintzen dizkiegu gazteei, zalantzarik edo galderarik badaukate oraindik,

bada horiek bidal ditzaten, modu anonimoan. Gero, neska lesbianeiei eskainitako atal bat ere badaukagu, hor hutsune handia dago-eta.

Zer-nolako gauzak galdetzen dituzte?

Batez ere, sexu-orientazioari buruzko galderak egiten dituzte, eta "kondoia hautsi zait" modukoak. Neska askok idazten digute esanez ez dutela plazerik sentitzen beren mutil-lagunekin dauzkaten sexu-harremanetan. Frustrazio handia agertzen dute. Mutilek ez dakite zer den klitoria, eta beraz, sarketa da jaun eta jabe, eta neskek ez dute ondo pasatzen. Horregatik ere kritikatzten dugu sexu-heziketa tradizionala, kondoia nola ipini erakusten dute, eta kito. Aski da. Sarketa ez da sexu-praktika bakarra, ezta garrantzitsuena ere, eta kondoia ipintzea ez da hain zaila, ikasiko dute, ez dira leloak. Kezkagarria da hainbeste galdera egitea horri buruz, baina badu alde onik, zeren neskak jakitun dira eta adierazi egiten dute, ez dute onartu nahi orgasmorik gabeko harremanik.

Orain bi urte, Oasis izeneko udalekua jarri zenuten martxan, lgtb gazteei zuzendua. Nolatan sortu zen ideia hori?

Egia esan, aspalditik generabilen ideia buruan, eta ez soilik Candelako kideok. Proiektua bera Candelak kudeatzen du, baina kanpoko kolaborazio asko ditu. Ikasgeletan, beti topatzen dugu genero-adierazpen diferentea daukan nerabe bat, gaia gertutik bizi duena eta

bakarrik sentitzen dena, eta geure artean esan genuen: ez al litzateke itzela izango denak elkartzea, han eta hemen bakarrik sentitzen diren horiek guztiak batzea?

Halako proiekturik ezagutzen al zenuten?

AEBetan badaude halako proiektu batzuk, beraz bagenekien ez zela hain gauza arraroa, baina ez gaude haiekin harremanetan. Gu geu ari gara proiektua eraikitzen etengabe. Hala ere, argi dago bazegoela premiarik. Espainiako Estatua basamortua da zentzu horretan, eta oasi horietan estatu osoko jendeak eman zuen izena, nahiz eta guk, hasiera batean, Kataluniara begira antolatu.

Zer moduzko esperientzia izan da?

Itzela. Candelan egin dudako proiektu ederrenetako bat da. Parte hartu dutenentzat ere halaxe izan da; batzuk bi txandetara etorri dira eta sinestezina da zenbat aldatu diren urtebeteko epean, batez ere mutil transak: nola hitz egin duten, nola dauden, zer-nolako itxura duten... Askoz gusturago daude beren buruarekin.

Familiako kideek ere asko eskertu dute erreferente positiboak ezagutzea. Proiektuaren oinarrietako bat da hori, izan ere, halako mito batzuk daude, adibidez, emakume trans guztiak sexu-langileak direla eta lgtb jendea ez dela zoriontsu. Orduan, gu ikusten gaituzte, ikusten dute gustura ari garela gure lanean, pozik bizi garela... Lasaitu egiten dira.



Azken hitza: Poza eta beldur bat

Miriam Aleman orain dela zazpi urte hasi zen Candelan lanean. Ibilbidea baloratzeko eskatu diogu: "Maite dut nire lana, izugarri gozatzen dut. Iruditzen zait gehiago eragiten dudala orain, hala ere, bestelako politika jorratzeko energia kentzen dit, eta horrek apur bat beldurtzen nau. Baina tira".

Homofobiari buruzko lege berria onartu zuten Katalunian 2014an. Zer deritzozu?

Ez dut legea sakonean ezagutzen, hala ere, legeen harira, zerbait esan nahi nuke. Orain dela zenbait urte, legeen guztiz kontrakoa nintzen, eta egia esan, ikuspegia aldatu dut, ikusitakoaren ondorioz. Kaleko borrokan ari zarenean, ez zara konturatzen borroka ez dela iristen emakume mordo baten premietara, bortizkeria pairatu eta sarerik ez daukatengana. Legea lagungarria da, nahiz eta ez den nahikoa, lege paternalista da, estatuak ez du sekula egingo ezer bere buruaren aurka, eta abar, eta abar. Tresa bat da, azken batean, eta horrelaxe hartu behar dugu. Ez da panazea, baina ez da hutsaren hurrengoa.

Candelako lanaren ondorio al da ikuspegi-aldaketa hori?

Dudarik gabe. Errealitate zabalago bat ezagutu dut elkarteko lanari esker. Mal-

guagoa naiz. Adibidez, sexualitatearen harira, prebentzioa da kalteak murriztea. Ez dago erabateko prebentziorik, edo bai, baina horretarako zure burua zela-fanean bildu beharko zenuke eta orduan jo larrua nahi duzunarekin, eta tira, ez nizuke hori gomendatuko. Beraz, kalteak murriztu. Egoerarik idealena ez da 15 urteko neska batek pilula hartzea, baina dena delako arrazoia dela medio ez badu kondoia erabiliko, bada, orduan, har dezala pilula. Testuingurua ezagutu behar dugu, eta horren arabera ekin, eta ez bota super epai moralik, horixe egiten baitu gaur egun hezkuntzak eta gizarteak. Neska batek bereak eta bi aditu behar ditu pilula hartu badu. Begirada horrek suntsitu egiten ditu, boterez hustu, eta ez da batere lagungarria. Hori bai, gero neskentzako autoestimua taile-rrak antolatzen dituzte etengabe. Neskak behin eta berriro ergeltzat hartu ostean zer autoestimua sustatu nahi dute? ■

Albendi

EUSKAL ARTISAUTZA

MAKILA

Opari berezietarako
Pertsonalizatuak
Prezio aukera desberdinak

 **ARGIA**

www.argia.eus/denda/makila
denda@argia.eus | 943 371 545

Boikot



June Fernández

KAZETARIA
@marikazetari

Badirudi Jorge Cremadesek Bilboko Campos Elíseos antzokian aurkeztuko zuen emanaldia bertan behera uztea lortu dutela hainbat talde feministak. Udalarekin bildu ondoren, antzokiak iragarri du ikuskizunak atzeratuko direla. Argudio ofiziala: “Konpromiso profesionalak”. Udalak poza adierazi du, emanaldiak bere berdintasun politikaren kontra egiten duelako.

Cremadesen bideoek estereotipo sexistak elikatzen dituzte eta bortxaketaren kultura sustatzen dute, esaterako mozkortuta dagoen neska batekin apropos ligatzen duelako. *El Español* egunkarian agertutako elkarrizketa batean haxe esan zuen: “Gizonek emakumeek baino bortxaketa gehiago pairatzen dute, baina horri buruz ez da hitz egiten”. Albiste hori publikatu ondoren, Elxeko Udalak umoregilearen emanaldia bertan behera utzi zuen.

Egoera hau ezaguna da Campos Antzokian. Iaz, Wismichu youtuberren ikuskizuna bertan behera utzi zuten bere umorea iraingarria delako eta antzeko presio kanpaina baten ondorioz.

Nire iritzia? Ba iritzia baino, hamai-ka zalantza. Alde batetik, testuinguru larri honetan (Espainiako Estatuan lau egunean bost hilketak matxista zenbatu dira) feministen eskaera ulertzen dut. Eta pentsa genezake umoregileak kontratuak galtzen baditu, agian diskurtsoz aldatzera behartuta sentituko dela. Bestetik, ez dezagun ahaztu hain ospetsu bilakatu dela hain zuzen ere umore sexista egiten duelako.

Bai, egia da Cremades eta Wismichuk gaztetxoaren artean daukaten eragina eta arrakasta kezkarria dela. Baina zein da egoera horri aurre egiteko bide eraginkorra? Wismichuren iskanbilaren ondoren, hainbat neskak esan zidaten feministekin oso amorratuta zeudela, gure errua izan zelako euren idoloa ezagutu

Bai, egia da Cremades eta Wismichuk gaztetxoaren artean daukaten eragina eta arrakasta kezkarria dela. Baina zein da egoera horri aurre egiteko bide eraginkorra? Wismichuren iskanbilaren ondoren, hainbat neskak esan zidaten feministekin oso amorratuta zeudela, gure errua izan zelako euren idoloa ezagutu gabe geratu izana

gabe geratu izana. Badakit mugimendu feministak erradikala izan behar duela, baina gazteen idoloen kontra pertsonalki egiteko estrategia ez dut oso garbi ikusten. Maluma erregetoi abeslariaren kasuan beste horrenbeste. Nire ustez, Maluma, Cremades eta Wismichu ez dira arazo, sintoma baino, matxismoa gure kulturaren eta gazteen artean errotua izatearen hiru adierazle. Euren ahotsak isilarazten baditugu, azaleko adierazpenak besterik ez ditugu isilduko. Nik nahiago dut euren bideoak eta kantak espiritua kritikoa pizteko erabiltzea, zein mezu hedatzen dituzten hausnartzeko eta diskurtso alternatiboak bilatzeko. Cremadesen polemikak bortxaketaren kulturari buruz sentikortzeko balio badu, hori gauza ona da. Baina gogora dezagun bera ez dela ideologo bat, baizik eta mutil koadrila gehienetan entzuten diren txantxak errepikatzen dituen norbait.

Azken kezka bat daukat. Gogoratu Mozal Legea. Gogoratu titiriteroen antzerkia. Gogoratu Guillermo Zapataren dimisioa. Testuinguru honetan ez al dugu tentuz pentsatu behar diskurtso iraingarrien kontra nola egin? Komiko batek “indarkeria matxistaren apologia” egiten duela esatea ez al da “terrorismoaren apologia” kontzeptuaren ildo jarraitzea? Bai, argi daukat ez dela gauza berbera, “terrorismo matxista” bizi-bizirik dagoelako eta bestea kriminalizazio estrategia delako. Baina nola azaldu hori gazteei? Nork erabakitzen du zein umore den zilegi? *Soy una pringada* youtuberrak gizon heterosexualek nazka sentiarazten diotela esaten du. Nola azaldu hori ez dela iraingarria?

Charlie Hebdo-ren kontrako atentatuaren testuinguruan Pablo Pérez Navarrok *Pikara*-n idatzitakoak konbentzitu ninduen: “Adierazpen askatasuna eskubide oso mehea da ez badu biraorako eskubidea onartzen”. ■

Zorroztasun profesionala

Badakit jakin, gaurko kazetaritzan, beste esparru askotan bezalaxe, lan prekarioa dela nagusi. Gainera, bizi garen abiadura dela-eta, albisteak arin baino arinago ekoiztu behar izaten dira. Esanikoa gutxi ez balitz, edo behar bada esanikoagatik beragatik, neurri batean bederen, gazte samarrak dira komunikabideetako langile gehienak, eta bizitzaren unibertsitateak oraindik ez die asko irakatsi nonbait. Horiek eta, ziur aski, beste batzuk ere izango dira arrazoiak egun pairatzen dugun zorroztasun profesionalik ezera iritsi izanak izateko.

Egunero, edo ia, aurkitzen dut erdaraz zein euskarazko medioetan aipatzeko moduko adibiderik, aurreko batean aipatu nituen ortografia edota gramatika akatsak kontuan hartu barik ere. Prentsa-kontsumitzaile amorratua baino amorratuagoa naiz, paperean zein pantailan edo uhinetan; baina maiz, maizegi, sentitzen naiz amorratua, hitzaren beste esanahian hain zuzen. Esaterako, duela gutxi nengoen Aragoiko telebista ikusten (esana dut euskaldun atipikoa naizela); halako batean entzun nuen Bilboko Kafe Nerbiónen kantatu omen zuela ez-dakit-nork 1930. urtearen inguruan, eta hor agertu ziren gaur egun Naja eta Maiatzaren Bia kaleen artean dagoen Kafe Nerbió izeneko tabernaren irudi batzuk. Ostatu hori 80ko hamarkadan zabaldu



Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Prentsa-kontsumitzaile amorratua baino amorratuagoa naiz, paperean zein pantailan edo uhinetan; baina maiz, maizegi, sentitzen naiz amorratua, hitzaren beste esanahian hain zuzen

zen, jaun-andreok! Kazetariak aipaturiko lokala Navarra kalean egon zen, eta aspaldian desagertu. Nik ezagutu ere ez nuen ezagutu, eta 60 urte ditut jada. Baina kazetariari bost; kontua zen, hala edo hola, lehenbailehen informazioa editatu eta ematea.

Beste adibide bat. Lehengo astean, medio askoan irakurri/ikusi/entzun nuen Manolita Chen artista ospetsua hil berria zela (esana dut euskaldun atipikoa naizela). Andre hori andrazkoa zen, noski, txinatar batekin ezkondua eta antzoki ibiltari baten jabea urte askotan; baina garai batean transexual bat egon zen, bera baino nahiko gazteagoa zena, eta haren izena erabili zuena beste antzoki batean nolabaiteko lehiari aritzeko-edo, inolako arrakastarik lortu ez bazuen ere. Bada, kazeta batzuetan irakurri behar izan nuen Manolita Chen transexuala hila zela, azken horren argazkia eta guzti jarrita! Imajina deza-kezue nola paratuko zen alaba!

Baina, gehien sumintzen nauena da –gehien jasaten dudana delako, besteak beste– “lehena”, “azkena”, “bakarra” eta horrelako epiteto berez erabat baztertzailak entzun edo irakurri beharra. Adinak zer edo zer irakasten badigu da ezer gutxi gertatzen dela lehen aldiz, edo inor gutxi izaten dela lehena zerbait egiten. Edo azkena. Edo bakarra. Baina, jakina, gazteek uste izan ohi dute mundua eurekin hasi dela. ■

blogetan!
BLOG IZARREN BILA

Bozka ezazu!

Bozkatzeko epea:
otsailaren 13tik martxoaren 10era
blogetan.eus

Antolatzailea: **azkue**
FUNDATIA

Laguntzailea: **ARGIA**

Lehen ala azken geltokia



Jakes Bortairu

AB-KO KIDEA

2017ko urtea mugarri gisa geldituko da Ipar Euskal Herriko historian, haren ezagupen politikoaren lehen urratsa lortua izan baita. Denek ez badute aitortzen ere, nehork ezin du ukatu jendarteko sektore zabalek bere egin duten aldarrikapen horren gauzatzea abertzaletasunaren garaipena ere dela. Haatik, batzuek espero dute urrats esanguratsu honek abertzaletasunaren ilunabarra ekarriko duela Ipar Euskal Herrian. Ukapena eta mespretxua baztertutik, abertzaletasunak (euskal burujabetza eraikitze proiektu gisa ulertutik, frantses eta espainol estatuetatik askatuz) ez luke gehiago funtsezko justifikaziorik, ez eta ondorioz, etorkizun handirik ere. Lurralde ezagupenak askatasun gosea aseko luke, eta beraz, Bidasoatik iparraldean franko berant garatu zen abertzaletasuna, mugarri bezala geldituko litzateke historian.

Iraganean abertzaletasunaren pizgarria zapalkuntza eta ukapenaren kontzientzia hartzea izan zen (beste herrialde askotan gertatu bezala). Ondorioz abiatutako erresistentziek eta herri mobilizazioek, ekintza armatuak barne, jasan zituzten mespretxuak eta errepresioak haserre eta elkartasun olatuak sortu zituzten, abertzaletasunaren hedapena elikatuz. Gaur egun, mekanismo horiek desagertzen ari dira. Iparraldeak nolabaiteko existentzia politikoa

badu. Euskara hizkuntza ofiziala izatetik urrun bagara ere, erakunde publikoetan nola edo halako hizkuntza politikak abiatu dira, lehenengo fruituak ekarriz. Preso eta iheslarien arazoak konpondu gabe irauten badu ere, borroka armatua desagertu da. Eboluzio politiko horiek jendartean dagoen euskal kontzientzia kolektiboak (Euskal Herriarekiko atxikimendua, populu berezi baten partaide sentitu eta nahi izatea) indartzen eta hedatzen segituko dutela duda handirik ez da. Besterik da proiektu abertzalearekiko atxikimendua. Lehena bigarrenaren elikagai inportanta bada (ez bakarria haatik), ez du mekanikoki ekartzen. Bihar-etzi zerk elikatuko du burujabetza gogo? Abertzaletasuna ez ote da instituzioen kudeaketan mugatu eta galduko? Historian zehar hainbat alditan gertatu bezala, ez dira gutxiestekoak instituzioetan parte hartzeak dituen joera eta arriskuak: mugimenduen energiaren xurgatzea eta ahalmen eraldatzailearen indargabetzea. Ez ote da *notabilismo* berri batean instalatuko, soilik klase politikoaren berritze eta modernizatzeko etapa bat markatuz? “Euskal bidea” Iparraldean karrika itsu bilakatzeko arriskua badea? Euskal Elkargo berriak ekartzen dituen epe motz eta ertaineko desafio eta erronka garrantzitsuekin batera Iparraldeko abertzaleek epe luzeagoko bide orria marrazten hasteko badute zer pentsa eta zer egin. ■

Bozka ezazue



Itxaro Borda

IDAZLEA

Azken egunotan, Baionako afixa-guneetan, hizki gorritz eta bi hizkuntzatan agertzen da botoa emateko deia. Aurten dauden hitzorduak ahantziko bagenitu bezala! Agian, askatasun indibidualaz gozatzen garen hondar hilabeteak ditugu eta maiatzaren 5etik hara bitzita erabat aldatuko zaigu: bistan dena, jauna/anderea, bozkatuko dugula...

Egunsenti batez, lasterka nenbilela, aldarri bixia hurbilagotik miatzeko zortea ukan nuen. Harritua nintzen, sosegatua ere, ez bide zen egoera hain larria, jendetasunak bazuen egoera benetan latzei ihardukitzeko kemena eta indarra: lasai, potxola, irabaziko dinagu Dolores: “*No pasarán!*”

Halatan, 2017ko Baionako Bestetako afixa botoz hautatzera deitzen gintuzten. Urte oroz bezala funtsean. Horrek lehendakaria aukeratzea baino garrantzi handiago bailuen. Etxera eta hiriaren webgunean sartu nintzen bost obrak aztertzeko: irudietako pertsonaia gehienak gizonezkoak ziren, salbu artista emakumezkoek aurkezturiko bi lanetan. Hain zaila al da paritatea margotzea?

Eroen Uharte, *snipperrik* gabe ordea, laburbiltzen zuen obraren alde egin nuen klik bat. Udako beroa, jendetza, jotak Gaztelu Zahar aldean eta ikastolak apailatu taloak amestu nituen berehala.

Ordura arte iraun beharra zegoen. ■

Hori bizitza guztia hemen eta ez du euskara ikasi

Ez dut gogoan esaldi hori neuk bota izana, baina maiz entzun dut eta buruaz igorleari arrazoia eman-go nion batzuetan ziurrena. Zenbat denbora eta euskara-ikasle potentzial galdu dugu euskaldunok era horretako esaldietan? Eta ze gutxitan aldarrikatu dugun –benetan nahi bagenuen erdal-dun horrek euskara ikas zezan– haren-tzat euskalduntzea debalde izatea.

Batzuetan uste dugu munduko gau-zarik normalena dela pertsona bat gure herri gutxitu/ukatu/asimilatu/txiki/berde/zahar/arrautzailera iristea eta 2-3 urte euskara ikasten ematea milaka euro ordainduta.

Berriki Dani Alvarezek *Aizu* aldizka-rian zioen euskaldunok asmatu behar-ko genukeela erantzun on bat galdera honentzat: ingelesa adibidez bidaiatze-ko, lana lortzeko eta abar, erakargarria bada, zertarako behar da euskara ikasi? “Hori bizitza guztia hemen eta ez du euskara ikasi” diote batzuek batere en-patiarik gabe, “horrengana” (euskaraz-ko) jarrera abegikor batekin hurbildu gabe. Eta kontrara inoiz ez da esaten “hori bizitza guztia hemen eta ez da al-fabetatu”, izan ere, beste “hori” etxekoa da eta ulertu ere ulertzen dugu bere sasoian eskola erdaraz zela, eta horre-gatik irakurtzen/idazten duela erdaraz. Eta honek arnaguneetara darama nire gogo.

Arnaguneei buruz zerbait entzuten dudanean normalean ez zait gustatzen. Ematen du biosferako babesguneak direla. Izan ere, ekosistema horietan berez ez dago arazorik, arazoak kan-potik datoz, kanpo-mehatxuak jasaten dituztelako, eta babestu behar ditugu. Tamalez, inkesta soziolinguistikoek dio-te arnaguneetan euskarak atzera egin duela, eta orduan migrazio-arrazoiak azaltzen dira. Neuk ez dakit badiren, baina bada barne-arazorik arnagunee-tan (ere). 30 bat urteko gazte euskal-



Ruben Sanchez Bakaikoa

ARGIA-KO BLOGARIA

@arlotea

Euskotarrismoak badu asko itxurakeriatik eta gurasokeriatik, haserretzen eta kezkatzen gara gure umeak erdaraz entzuten ditugunean, telefono mugikorra eskutik askatzen ez duen gurasoak bere umei hori egin ez dezaten eskatzen dienean bezala

dun batek euskaraz ia ezer irakurtzen ez duenean, adibidez.

Euskara batuak ez duenez *molatzen*, ez dute euskaraz nobelak, *Berria* edo ARGIA irakurtzen, holakoetarako ba-dute erdara batu *moloia*. Eta euskara kultur-zientzia-pentsamendu hizkuntza ez denez, ez dute beharrik sentitzen zi-nema/telebista/internet euskaraz izan daitezen aldarrikatzeko. Nik nire ito-gunean eta beraiek beren arnagunean berdin kontsumitzen ditugu pantaila handiko filmak edo gustatzen zaizkigun serieak. Erdaraz noski.

Baina euskotarrismoak baduenez asko itxurakeriatik eta gurasokeriatik, haserretzen eta kezkatzen gara gure umeak erdaraz entzuten ditugunean, telefono mugikorra eskutik askatzen ez duen gu-rasoak bere umei hori egin ez dezaten eskatzen dienean bezala.


Euskalgintza ere euskotarrismo ho-rrek kutsatu/elikatu/subenzionatu/po-litizatu/despolitizatu zuenez, gaur egun jakitun gara duela 35 bat urteko euskara-politika instituzional zein “herrikoiek” eman dutena baino askoz gehiago ez dutela emango, baina ez dakigu zer egin. Baditugu aisialdirako mila elkarte, ehun-ka euskaltegi, itzulpen zerbitzu, euska-ra-teknikari, etab. guztiz beharrezko bai, baina ez nahikoak.

Euskara –gaztelania eta frantsesa bezala– heldu guztientzat debalde izan gabe ezin da normalizatu. Halaber, ume guztiei euskara ikasteko eskubidea ber-matu behar zaie. Instituzioek lagundu behar dute euskaraz bizitzea errazago izan dadin zerbitzu eta hedabide pu-bliko zein pribatuetan, liburu, aldizkari eta filmen sorkuntzan eta itzulpenean. Hori dena, ordea, alferrik izango da euskaldunek *Egia* eredutik jo eta eus-kara kultur-zientzia-pentsamendu hizkuntzat hartu ezean.

Orduan euskara ikasi eta erabiltzeko motibo erakargarriagoak izango dira. ■

20. ^{aek}korrika IBILBIDEA

2017ko martxoaren 30etik apirilaren 9ra OTXANDIOTIK IRUÑERA



APIRIKAK 1 LARUNBATA

Kastejon00:20
Zintzoniko01:57
Tutera03:48
Arketas05:28
Balterra05:47
Alesbes07:25
Kaparrotsu09:11
Erriberri11:23
Tafalla12:02
Eslaba14:55
Oibar15:58
Zangotza16:54
Irunberri18:38
Domeñu19:28
Nabaskoze21:15
Burgi22:44
Erronkari23:53

MARTXOAK 30 OSTEGUNA

Otxandio17:00
Legutio17:40
Gasteiz19:02
Langraitz23:46

MARTXOAK 31 OSTIRALA

Argantzun00:32
Trebiñu01:30
Bernedo04:32
Kanpezu06:06
Zubielki08:13
Murieta08:59
Zirauki09:18
Mañeru11:28
Gares11:59
Mendigorri12:44
Artaxoa13:36
Larraza14:52
Lerin16:19
Karkar17:32
Lodosa18:25
Andosilla19:28
San Adrian19:54
Azagra21:18
Milagro22:29
Kadreita23:28

APIRIKAK 2 IGANDEA

Izaba00:37
Uztarrotze01:07
Itzaltzu02:49
Otsagi03:11
Abaurregai04:49
Garalda06:18
Auritzberri07:11
Auritz07:44
Orreaga08:01
Luzalde09:37
D. Garazi10:55
Bidarra12:58
Kanbo14:40
Ustaritze15:40
Baiona17:24
Angelu18:25
Biarritz19:04
D. Lohitzune21:38
Azkaine23:22

APIRIKAK 3 ASTELEHENA

Sara00:06
Senpere00:56
Itsasu02:38
Hazparne03:55
Donapaleu07:17
Maule09:55
Ainhize13:35
Baigorri16:35
Erratzu18:22
Elizondo19:19
Oronoz20:15
Doneztebe20:54
Ituren21:20
Zubias21:45
Saldias22:30
Orokieta23:58

APIRIKAK 4 ASTEARTEA

Auza00:30
Eltzaburu00:44
Jauntsarats01:34
Etxaleku02:07
Latasa02:42
Irurtzun03:14
Madotz04:01
Astiz04:29
Lekunberri05:01
Betelu06:10
Lizartza06:51

APIRIKAK 5 ASTEAZKENA

Orio00:42
Zarautz01:31
Zumaia02:54
Zestoa03:51
Azkoitia05:40
Elgoibar06:22
Deba08:35
Motriku09:29
Ondarra10:21
Markina11:19
Aulesti12:32
Lekeitio14:15
Ea14:54
Elantxobe15:59
Gernika17:30
Bermeo19:39
Bakio20:58
Mungia22:00

APIRIKAK 6 OSTEGUNA

Gorliz00:06
Sopela01:06
Areeta02:08
Leioa03:23
Erandio03:56
Barakaldo04:57
Portugaleta06:32
Santurtzi06:55
Trapagaran07:46
Muskiz09:38
Sopuerta10:38
Zalla11:18
Balmaseda13:04
Durango18:46
Elorrio20:15
Berriz21:00
Zaldibar21:29
Mallabia21:55
Derio22:26
Lezama23:10
Larrabetzu23:31

APIRIKAK 7 OSTIRALA

Lemoa00:49
Igorre01:19
Zeanuri02:16
Ubidea03:56
Gopegi05:08
Murgia05:50
Izarra06:42
Urduña07:38
Amurrio08:52
Aiara09:11
Amurrio10:01
Orozko11:50
Laudio12:45
Arrigorriaga14:17
Basauri14:44
Etxebarri15:31
Galdakao16:03
Zornotza16:59
Durango18:46
Elorrio20:15
Berriz21:00
Zaldibar21:29
Mallabia21:55
Derio22:26
Lezama23:10
Larrabetzu23:31

APIRIKAK 8 LARUNBATA

Bergara00:22
Urretxu01:51
Zumarraga02:09
Beasain02:58
Ordizia03:55
Ikaztegieta04:49
Alegia05:08
Amezketta05:47
Zaldibia06:44
Ordizia07:09
Idiazabal08:23
Laudio09:01
Zerain09:33
Legazpi10:38
Onati11:54
Arrasate12:50
Aretxabalet13:37
Leintz Gatzaga14:35
Ozaeta16:11
Dulantzi18:14
Agurain19:46
Araia21:05
Olazti22:26
Altsasu22:46
Bakaiku23:41

APIRIKAK 9 IGANDEA

Etxarri Ara00:16
Uhartea Ara01:30
Etxarren02:32
Erratz03:02
Erize03:39
Berriobeiti04:39
Berriozar04:46
Barañain05:37
Zizur06:03
Noain07:01
Mendillorri08:18
Sarriguren08:42
Uhartea09:01
Atarrabia09:19
Antsoain09:35
Iruñea09:46
Burlata10:03
Iruñea10:18
Amaiera12:30

BAT
ZUK

Adingabeak eta mugikorrak

INTERNETEKOA EZ DA BIZITZA BIRTUALA

Litekeena da inoiz telebistak saltzen dituzten denda batera sartu eta ume bat ikustea hatza pantailaren gainean irristatzen, belaunaldi berriek teknologiarekin duten harremanaren erakusgarri. Koxkortzen doazen heinean, arriskuak etengabe errepikatzen mugatzen gara askotan helduok, kontziente izan gabe adin txikikoen identitate digitala eraikitzekeo prozesuan gure jardunak zuzeneko eragina duela. Interneten zu zeu izaten jarraitzen duzula barneratzea, funtsezkoa.



Jon Torner Zabala

@jtorner

Urruñako (Lapurdi) San Frantses Xabier ikastetxean *Hamar egun pantailarik gabe* erronkari helduko diote maiatzaren 9tik 18ra bitartean, bi helburu nagusirekin, Lehen Mailako irakasle Eneko Jorajuriak azaldu digun moduan: bortizkeriaren banalizazioaz ohartaraztea batetik, eta pantailari begira behar baino denbora gehiago emateak eskolako errendimenduan eragin negatiboa duela azaleratzea bestetik.

“Kolpeak, irainak, hitz larriak... banalizatuak direla ikusten dugu, ez soilik helduen kolegioetan, baita Lehen Mailan ere, 11 urtez azpiko umeen artean”, kontatu digu Jorajuriak. Bortizkeriak presentzia handia du telebistan, marrazki bizidunetan eta gazteei zuzendutako filmetan ere bai, eta horrek ekar dezake indarkeria dagokion tamainan ez neurtzea, ikasleek distantziarik ez hartzea, sarri ez dutelako bortizkeria gisa errekonozitzen. “YouTubeke hain-

bat bideorekin berdin; umore modu berria da haientzat”. Dioenez, geroz eta lehenago erosten dizkiegu mugikorrak umeei, eta zaila da kontrolatzea uneoro zer egiten duten. Gaez ohe ondoan uzten dituzte, eta goizeko ordu txikietan elkarri mezuak igortzen dizkiote, hirugarren bati buruz hitz egiten aritzen dira... Horrek guztiak eragina du harremanetan”.

Halaber, gosaltzeko tenorean edo oheratu baino lehen pantailari begira egoiteak atentzio anitz eskatzen diela esan digu, ez duela laguntzen burmuina pausatzen, eta arreta gutxiagorekin doazela eskolara. Edupax.org webgunean jaso daiteke *Hamar egun pantailarik gabe* egitasmoari buruzko informazioa. Eskolaz kanpoko gailuak direnez ahal bezain gutxi erabili beharrekoak, gurasoen parte-hartze aktiboa ezinbestekoa izango da, eta zonaldeko eragileak ere inplikatu dituzte, “sobera” geratuko

zaien denbora hainbat elkarteren jarduna ezagutzeko baliatuko baitute ikasleek.

Ez da errealtate paraleloa

“Batez beste, neska-mutilak Jaunartzean hasten dira lehendabiziko mugikorrak eskatzen, 9-10 urte dituztenean. Smartphone bat nahi dute gainera, gutxiagorekin ez dira konforme”, esan digu Larraitx Zeberio, 7 eta 10 urteko bi mutikoren amak. Goiena komunikazio taldeak Arrasaten (Gipuzkoa) duen egoitzan elkarriketatu dugu, Itziar Larrañagarekin batera. Guraso.eus proiektuko kideak dira biak, Goienak eta Txatxilipurdi aisialdi elkarteak kudeatua. “Elgetan bizi gara. Inguruko ume batzuek jada badute mugikorra, baina 12 urte izan arte eurei ez diegula erosiko hitzartu dugu guk”, jarraitu du Zeberio. “Bigarren Hezkuntza hastean jasoko dute, Bergarako eskolara doazenean”.



DANI BLANCO

Sare sozial bakoitzak gutxieneko adina finkatzen du erregistratu ahal izateko, 13-14 urteren bueltan, baina maiz jaiotze-data besterik eskatzen ez dutenez, oso erraza da sistema engainatzea. Gurasoen egitekoa da pribatutasun-politikari buruzko azalpenak irakurri eta, ahal den neurrian, seme-alabekin erabilpen arauak adostea, berezkoa duten arren helduen "kontrolari" ihes egiten saiatzea.

Lehendabiziko telefonoa zein adinekin erosi, zenbat denboraz erabiltzen laga, arriskuak nola saihestu edota erabilpena zein punturaino kontrolatu ohiko hizketa-gaiak dira gurasoen artean.

Arriskuez hitz egitean, datu pribatuen eta bereziki argazkien erabilerak sortzen du kezka gehien. "Sare soziale-tan-eta, aski da irudi bat zabaltzea betirako agertzeko Interneten", dio Eneko Jorajuriak. "Sarri, gazteek ez dute aski pentsatzen zer partekatzen duten, eta ez dira nahikoa sentsibilizaturik datu guztiak ez direla ezabatzen ahal, edo-nork ikus ditzakeela". Zentzu berean mintzo da Larraitx Zeberio: "Argi izan behar dugu sare soziale-tan zerbait publikatzea dela herriko plazaren erdian bozgorailuekin haizatzeta bezala".

Itziar Larrañagaren hitzetan, arazo nagusietakoa da Internet "errealitate paraleloa" dela barneratzea: "Uste dut hitz horrek kristoren arriskua ahal due-

la ekarri, pentsarazten dizulako errealitate paraleloa izanik beste identitate bat zeureganatu eta nahi duzuna egin dezakezula, iraindu eta beste, jendeak ez duelakoan deskubrituko nor dagoen pantailaren beste aldean. Bada, argazki edota izen faltsuak erabili arren, ez da oso zaila benetan nor zaren jakitea. Inportantea da jabetzea Interneten zu zeu izaten jarraitzen duzula".

"Teknologia ez da txarra; ematen zaion erabilera da gakoa", dio Larrañagak: "Arriskuak saihesten irakatsi behar diegu adingabeei, txikitatik ikasten duten bezala errepidea ez dela edozein lekutik gurutzatu behar, edo bizikletan kaskoa erabiltzea komeni dela. Eta erakutsi ahal izateko, helduok ere etengabe ikasi behar dugu, teknologien mundua aldakorra baita oso". Prozesu horretan, arriskuak behin eta berririo errepikatzen aritzea baino, eraginkorragoa da sare sozialen eta aplikazio berrien in-

guruko informazioa pilatu eta erabilpenaren ingurukoez elkarrekin eztabaidatzea. Hedabideetako diskurtso alarmistez kexu dira Guraso.eus webguneko kideak, beldurtu besterik egiten ez dutelako: "Teknologiaren inguruan ezagutza nahikorik ez baldin badaukazu, alarma guztiak piztu eta debekuaren bidea hautatuko duzu. Arriskutsua da hori".

Iritzi berekoak dira Iyuya Urrutia eta Lierni Goya, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak abiatutako "Instant1ean" programako ordezkariak. Nerabeei zuzendutako ekimenak sustatzen dituzte, teknologiekin lotutakoak sarri, herrialdeko udal-gaztelekuetako hezitzaileekin elkarlanean. "Arriskuak aipatu egin behar dira, baina alde positiboak landu nahi ditugu guk, badirudielako gauza oro txarra dela. Gure nahia da gazteei euren identitate digitala modu egokian sortzen lagun-



JON TORNER



JON TORNER

Guraso.eus-eko kide Itziar Larrañagak eta Larraitx Zeberioi (ezkerreko argazkian), Gipuzkoako Diputazioaren "Instant1ean" programaren arduradun Lierni Goya eta Iyuya Urrutia (erdian), eta Kirolaren Euskal Eskolako teknikari Joseba Bujanda (eskuinean), baita Urrutiako San Frantses Xabier ikastetxeko irakasle Eneko Jorajuria ere, helduon rolaz mintzatu zaizkigu: koherenteak al gara gure diskurtsoarekin? Zer nolako herentzia digitala ari gara uzten seme-alabei?

tzea, iritzi kritikoa bultzatu eta ezta-baida prozesua bermatzea, giza esku-bideez, pribatutasunaz, sexismoaz eta abar. Gazteak nazkaturik daude zer egin behar duten behin eta berriro entzuteaz".

Dena den, hezitzaileengandik jasotako zuzeneko lekukotzak oinarri, Urrutiak eta Goyak diote erabilera okerrari buruzko teoria barneraturik daukaten arren, gazteek maiz pentsatzen dutela haien -edo inguruko- larruan ez dutela halakorik biziko. "Gerta liteke zenbait portaerari garrantzia kentzea, eta teknologiaren berehalakotasuna medio, konturatzera arazoa jada erroturik egotea. Batzuetan, sare sozialetan lagun berria egin eta denbora gutxira etxeko helbidea ematen diote. Horrelakoak sailhesten ikasi behar dute".

Identitate digitala eraikitzen

Sare sozial eta aplikazio konketuak eraikitzea modernotasun edo heldutasun ikur izan daiteke, eta haien identitatea eraikitzen ari diren gazteentzat garrantzitsua da hori, Itziar Larrañagak azaldu digunez: "Taldea bateko kide direla sentitu nahi dute, onartua izan, eta sare sozialek aukera ematen dute norberaren moduko pertsonak aurkitzeko, etiketen bidez zaletasunak zerrendatuta, esaterako". Dioenez, Facebook "zaharren kontua" bailitzan ikusten dute gaur egungo gazteek. Eta gurasoak han dabilenez, euren beste norabait egiten dute salto, Instagram edo Snapchat-era, gehien erabiltzen dituztenak aipatzearen.

Lierni Goyaren hitzetan, gai konkre-

tuetan erreferente diren pertsonak aurkitzeko erabiltzeaz gain, sare sozialek aukera ematen dute sormena landu eta norbera protagonista bilakatzeko, bideoak grabatu edota Instagramera argazki artistikoak igota, besteak beste. Alegia, haien gustuko zaletasunetatik abiatuta gaitasunak garatu ahal dituzte gazteek, nortasun digitala eraikitzeko prozesuan lagungarri gerta dakiekena. Urrutiako irakasleak ere horri heldu dio: "Teknologia baliagarria da haurrek beren ekoizpenak egin (bideo laburrak, animazioak, soinu grabazioak...) eta aktore gisa pasatzeko pantailaren gibelera. Eguneroko erronkei erantzuteko, lehen urratsa da umeak sortzaile izatea".

Gurasoek bizitza konplikatzan dutenean

Zergatik hitz egiten da hainbeste sare sozialek gazteengan duten arriskuez, eta hain gutxi helduok egiten dugun erabileraz? Gurasoek koherenteak al gara gure diskurtsoarekin? Zer nolako herentzia digitala ari gara uzten gure seme-alabei?

Ohikoa baita sare sozialetara gure haurren argazkiak igotzea, jaiotzen diren unetik bertatik, ez bada lehenago ekografiak sareratu ditugula. Seme-alaben biografia grafikoa osatzen goaz egunetik egunera, haien bizitza pribatuari buruzko informazioa (etxebizitza, eskola, lagunak...) zabaltzearekin bat askotan, erabat kontziente izan gabe adinez txikikoen argazkiak publikatzeak ondorio kaltegarriak izan ditzakeela, segurtasunari dagokionez batetik, eta

psikologikoak bestetik. Publikatzen ez dena ez dela existitzen uste dugu, eta zakua bete "Atsegin dut" jasotzeak itsutu egiten gaitu batzuetan, are gehiago tartean seme-alabak daudenean.

Gurasoentzat dibertigarria den argazkia edo garrantzirik ez duen datua, bestelakoa iruditu dakioke seme-alabari, eta litekeena da etorkizunean inpaktu bat izatea haren lan jardunean, familian edo harreman sozialetan. "Agian, hantitzean, adingabeari ez zaio gustatuko jendeak jakitea zein ikastetxetara joaten zen, edo pailazoz mozturrotuta agertzen den umetako argazkiak bere kontra egitea nerabea denean, ikaskideek trufa egiteko balia dezaketelako", dio Kataluniako UOC unibertsitateko psikologo Irene Montielek (*La Vanguardia*, 2017-01-21): "Sare sozialetan seme-alaben argazkiak erakusteak eragina du haien garapen psikologikoan, euren identitatea garatzen ari diren etapako parte den heinean. Ume horrek, 8-9 urterekin Interneten sartu eta ikusiko du norbaitek jada osatu duela bere identitate digital bat. Litekeena da berak nahi duenarekin bat etortzea, edo ez, eta bere izaera eraikitzeko agian borroka egin beharko du beragatik erabaki duen pertsonak sortutakoaren aurka. Eta, hain justu, bizitza konplikatu diotenak gurasoak dira, bere eskubideak defendatu beharko lituzketen horiek".

"Ni ez nago umeen irudiak publikatzearen aurka, baina tentuz jokatu behar da", esan digu Guraso.eus-eko Itziar Larrañagak: "Nortzuk dira zure ustezko lagunak, 20 ala 500? Sare sozialetan ar-



gazkiak publikatu baino lehen pribatasun arauak irakurtzea eta mugak jartzea komeni da. Berdin WhatsApp-ekin. Argazkia nire lagunei soilik bidali ahal diet, baina auskalo gero haiek euren kontaktuen artean zabalduko duten ala ez". Argi ibili, diote adituek, litekeena baita daukazun 500 lagun horien artean bakarren bat hain laguna ez izatea.

"Gurasoen jarrera batzuk inkoherenteak dira haien diskurtsoarekin", onartu du Larraitx Zeberio. "Tentuz ibili beharra dago, umeei gehiago ikasten baitute egiten duzunetik, esandakotik baino". Haiekin gaudenean etengabe WhatsApp-ari begiratzea, mugikorra eskuetatik kendu eta gu bakean lagatzea komeni zaigunean atzera berriro ematea, sare sozialetan zientoka lagun egin eta orotariko edukia igotzea, kontsolarekin jo eta su aritu eta mugikorra jolaserako erabili ez dezaten eskatzea... Helduok ere badaukagu zer ikasi.

Kontrola vs espioitza

Zeberio kontatu digu etxean daukaten telebistak Internetarako zuzeneko sarbidea duela. "Egongelan dago, semeek zer ikusten duten hobe kontrolatu deza-kegun lekuan". Hitzok bide eman digute adingabeek teknologiaz egiten duten erabilera zein punturaino kontrolatu behar den galdetzeko, kontziente izanik gai arantzatsua dela, zaintzaren eta espioitzaren arteko muga lausoa izan daitekeelako oso. "Gurasoek begiratzen duten bezala seme-alabek euren armairuetan zer gordetzen duten, begiratzen dute zein webgunera sartu diren edota

11itzulpen

EUSKARATIK INGELESERA ZUZEN INGELESETIK EUSKARARA ZUZEN

EUSKARA | CASTELLANO | FRANÇAIS | ENGLISH

Euskal Herrian gehien erabiltzen diren hizkuntzen arteko itzulpenak eta zuzenketak egiten ditu 11itzulpenek. Eskarmentu eta prestakuntza handiko gure itzultzaile eta zuzentzaile taldeak eta gure lan-metodologiak itzulpenen kalitatearik gorena bermatzen dute.

» Testu kalitatea bermatzen dugu

» Lana eskatutako epemugan eta formatuan entregatzen dugu

» Terminologia zehatza eta koherentea ziurtatzen dizugu

www.11itzulpen.eus

info@11itzulpen.eus

Skype: 11itzulpen

☎ (34) 699 433 121

ENTRENATZAILEEK NOLA BEHAR DUTE JOKATU KIROLARIEKIN?

Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren menpeko Kirolaren Euskal Eskola gida bat prestatzen ari da, “adingabekoek osatutako taldeen barruko komunikazioan sare sozialak behar bezala erabil daitezen”, arreta berezia jarrita WhatsApp bezalako plataformetan, klubeko arduradun eta jokalarien arteko komunikazioaren oinarrietako bat diren heinean. Bitarteko horiek alde positiboak baitituzte, baina arriskuak ere bai, zenbait irizpide finkatzen ez badira behintzat.

Batez ere entrenatzaileei zuzendutako gomendioak bilduko ditu gida horrek, haiek baitira jokalariekin zuzeneko harremana daukatenak. “12-13 urteko nesken saskibaloia taldea entrenatzen dut Bilbon”, azaldu digu Kirolaren Euskal Eskolako teknikari Joseba Bujandak. Ohikoa den moduan WhatsApp taldea sortu zuten, informazioa helarazi eta talde dinamika sortzeko tresna eraginkorra delako, baina erabili ahala zalantzak sortu zaizkio: “Neskekin banaka komunikatzea egokia al da? Euren gurasoekin hitz egin behar al nuke?”. Nahiz eta ez duen arazorik sekula izan, kontziente da, adibidez, sexu jazarpenaz mintzo garenean kirol-eremua dela arrisku-guneetako bat. “Gaiaz informazioa bilatzen hasi eta konturatu nintzen entrenatzaile eta jokalarien arteko komunikazioaz ezer gutxi dagoela. Horregatik heldu genion gida plazaratzearen erronkari. Arriskuak nola saihestu azalduko dugu, teknologiarren alde positiboak alboratu gabe: esaterako, hitzorduak adosteko erreminta eraginkorrak dira oso, baina kirola bera sustatu eta zaletasuna txertatzeko ere, entrenatzailearen nahia baita adinez aurrera doazenean gazte horiek saskibaloia ez uztea. Horrela bada, saskiratze ikusgarrien bideoak bidaltzen dizkiet, edota mugimendu zehatzenak, gauza bera egitera animatu daitezen”. Maiatzean aurkeztuko dute gida.



AVG enpresak hainbat herrialdetan egindako inkestaren arabera, 6 hilabete dituzten haurren %81ak presentzia du Interneten, eta %23ak baita jaio aurretik ere, gurasoek publikatzen dituzten ekografiengatik. Halaber, 2 urtetik beherako umeen %7ak e-posta helbidea du (gurasoek sortua), eta %5ak kontu propioa Facebooken. Horrek guztiak legalki ere izan dezake ondorio. Austrian gertatu da, esaterako, 18 urte bete berrian neska batek gurasoak salatu dituela sare sozialetatik bere umetako argazkiak (pixontzian eserita, pardela aldatzen...) kendu ez dituztelako, bere intimitate eskubidea urratu dutelakoan. Frantzian, bestalde, agintariak ohartarazi dute adingabeen argazkiak publikatzeak 45.000 eurora arteko isuna ekar dezakeela, kasu bakoitzaren arabera.

sare sozialetan zenbat lagun egin dituzten, bereziki susmoa hartzen badiote ohiz kanpoko zerbait gertatzen ari dela, umeak eskola-jazarpena sufritzen ari direla-edo”, esan digu Larrañagak. Jazarpena aipatu dugunez, parentesitxo bat irekiko dugu bi kontu argitzeko: Batetik, seme-alabak “biktima” izan daitezkeela sinetsita gomendioak eman eta gaiaz hitz egitea positiboa da, baina ahaztu gabe “erasotzaile” edo “konplize” izan daitezkeela, eta zentzu horretan ere komeni dela prebentzio lana egitea. Bestetik, teknologiak dituen alde txarrekin (sufritutako umiliazioak denbora gutxian izan dezakeen zabalpena kasu), badu nabarmendu beharreko ezauga-

rri positibo bat, Guraso.eus-eko kideak dioen bezala: “Grabatutako bideoei esker jasandakoaren froga bat daukazu; salaketa jartzerakoan baliagarria izan daiteke”.

Gazteekin aurrez aurre hitz egitea funtsezkoa dela irizten diote elkarrizketatuek. “Askotan pentsatzen dugu hobe dela mota bateko bideoak ez erakustea, horretara bultzatzen ari garelakoan, baina nire ustez kontrakoa da, ulertaraztea gaizki dagoela; gure laguntzarik gabe ere helduko dira eduki hori ikustera”, dio Larrañagak. Era berean, guraso-kontrolerako aplikazioak ezartzen ditugunean komeni da seme-alabei azaltzea zergatik egin dugun, meha-



MRLISTA.COM

txuek edota ezkutuan aritzeak maiz ez baitute fruiturik ematen.

Bestalde, Guraso.eus proiektuko lagunek azaldu digute nahikoa zabaldurik dagoela seme-alabekin akordio batera iritsi eta kontratu moduko bat sinatzea, teknologiaren erabilpenari buruzko arauak eta balizko zigor eta sariak jasoko dituen. “Espioitzan aritu beharrean, hobe da lehenago adostasunera

» **IYUYA URRUTIA,**
“Instant1ean” programako arduraduna
 “Arriskuak aipatu egin behar dira, baina teknologiaren alde positiboak landu nahi ditugu guk, gazteei identitate digitala modu egokian sortzen lagundu eta iritzi kritikoa bultzatu. Nazkatu daude zer egin behar duten behin eta berriro entzuteaz”

» **ITZIAR LARRAÑAGA,**
Guraso.eus
ekimeneko kidea
 “Guraso-kontrolerako aplikazioak ezartzen ditugunean komeni da seme-alabei azaltzea zergatik egin dugun, mehatxuek edota ezkutuan aritzeak maiz ez baitute fruiturik ematen”

heltzea, umeei argi izan dezaten hitz emandakoa bete ezean zer gerta dakiekeen”, esan digu Larrañagak. “Euren iritzia kontuan hartzen dugula ikusiz gero errazagoa da guztia”.

Euskaltel konpainiak pasa den Gabonetan aurkeztu zuen “Lehen hitzarmena” kanpainaz gogoratu gara, oinarri gisa zuena teknologiaren erabilera zuzenari buruzko dekalogo moduko bat. “Gurasoen eta seme-alaben arteko akordioa da, lehen mugikorraren erabilera egokia bermatzeko sortua”, zioen enpresak: “Etxe askotan sortzen da kezka bera: Zer adin da egokia lehen mugikorra eskuratzeko? Azken ikerketen arabera 10 urtetik beherakoen %10ek badute mugikorra. Hala ere, garrantzitsuena ez da zer adinetan hasten diren, baizik eta zer baliorekin”. Balorazio sakonagoetan murgildu gabe, Zeberioek aipatu digu iragarkian agertzen diren umeen adinak apur bat harritu duela, gaztegiak direlakoan –bideoan agertzen diren neska-mutiko batzuek 8 urte dauzkate–. “Aditza ematen du adin horretan mugikorra izatea erabat normala dela”.

Martxa honetan bai, normala izango da. Normala izan beharko duen bezala helduok etengabe egokitzea gailu eta aplikazio berrietara. Erreportajearen ari-tu gara sare sozialen inguruan, bat-bateko mezularitza-zerbitzuez, pribatutasunaz, identitate digitalaz eta abar, baina adingabe eta teknologiaren arteko harremanak adar askoz ere gehiago du, guraso edo hezitzaile gisa bazterrean laga ezin ditugunak: bideo-jokoekiko menpekotasuna, Internet bidezko kirol-apustuak, estereotipo oso markatuak produzitzen dituen pornografiaren kontsumoa... Adarretatik heldu beharreko hamaika adar. ■

5. finalaurrekoa

LAUDIO
LHUIko zine-aretoa

MARTXOAK 11
larunbata 17:30
Gaiemak: Oier Suarez Hernando

Xabi
Igoo Eriz

Jagoba
Apaolaza Kastro

Asier
Rubio Hidalgo

Ander
Solozabal Kortabarria

Rikardo
G. de Durana Alzola

Paula
Amilburu Izagorai

Arabako Bertsolari Txapelketa 2017

www.bertsotzale.eus/araba

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

Babesle nagusiak:

Udapa

LABORAL Kutxa

Vital gizarte ekintza

artepan

Udala

Antolatzailea:

Laudio

Arabako Bertsotzale Elkartea

ARGIA

Multinazionalen interesak zaletuen gainera

Kaleratze behartu baten istorioa da Italiako AC Reggiana futbol taldeak bizitakoa. European herritar eta zaletuen autogestiotik eraikitako futbol zelaia bakanetakoa 2013an Mapei multinazionalaren esku geratu zen. Eraikuntzaren burbuilaren leherketa eta kudeaketa txarra baliatu zituen Giorgio Squinzi enpresariak herriarena zena bereganatzeko.



Xuban Zubiria

@xubanzubiria

Futbol zelaia erosi berrian Mapeik ezarri nahi dituen aldaketen aurka kalera aterara dira Italia Iparraldeko Reggio Emilia herriko biztanleak. US Sassuolo futbol taldea ere multinazionalarena da eta Reggiora eramatea erabaki zuten. Hartara, egun zelaia berean jokatzen dute bi taldeek. Azken asteetan giroa nabarmen okertu da multinazionalak Reggianaren sinbolo eta kolore granatea harmailetatik ezabatzeko asmoa adierazi ostean.

Reggio Emiliako Udalaren eskaerei entzungor eginez, estadioaren kanpoaldeko paretetako kolore granatea eta sinbologia kendu ostean, futbol zelaiaren barnealdeko adierazpen granaterik txikiak ere ezabatu egingo dituela adierazi du Giorgio Squinzi jabeak eta leku horietan multinazionalaren publizitatea ezartzeko eskubide osoa duela nabarmendu du. US Sassuolo hauspotu eta AC Reggiana zokoratu beste asmorik ez duen erabaki baten aurrean daudela salatu dute Reggianaren zaletuek.

AC Reggiana autogestiotik desjabetzara

1993. urtean AC Reggiana-k lehen mailara igotzeko promozioa irabazi zuen.

Garaipen hark hauspotu zuen futbol zelaia berri bat eraikitzeke nahia. Elkartearen helburua zen futbol zelaia, erakunde edo kapital handien eskueztatik at, modu autonomoan eraikitzea. Autogestioa oinarri, eskualdeko enpresa txiki, abonatu eta zaletuen diru ekarpenekin, 1995. urtean eraiki zuten Stadio Giglio futbol zelaia.

Krisi ekonomikoak eta zuzendari-tzak kluba eta futbol zelaia kudeatzeko hartutako erabakiek AC Reggianaren bideragarritasun ekonomikoa kinka larrian jarri zuten. Taldearen egoera iraultzeko saiakerek porrot egin zuten eta futbol taldea desagertu egin zen. Auzolanean eraikitako futbol zelaia hiriko epaitegiaren esku geratu zen.

Urte batzuk geroago epaitegiek festadua enkante publikora eraman zuten. Enkante publikoak hartu zuen dimentsioaren jakitun Reggianak uko egin zion parte hartzeari eta Italiako enpresa handi eta multinazionalak hartu zuten parte. Taldearen identitatea errespetatzearen truke eta futbol zelaia goitik behera aldatuko zuen inbertsio plan bat aurkeztu ostean,

2013an Giorgio Squinzi zuzentzen duen Mapei multinazionalak irabazi zuen enkantea. 15 urteren buruan autogestioaren oinarrietan eraikitako futbol zelaia Italiako enpresa indartsuenetakoa batek erosi zuen.

Città del Tricolore estadioaren (epaitegiak izena aldatu zion) erosketa, Squinzi futbolaren munduan eginiko bigarren transakzio handia izan zen. Urte batzuk lehenago Modena probintziako Sassuolo hiriko US Sassuolo klub xumea erosi zuen enpresariak. Sassuoloko taldearekin egin duen moduan, Reggianako futbol zelaiaren aktibitatea goitik behera aldatu nahi du Mapeik izaerari edo identitateari erreparatu gabe.

US Sassuolo Reggio Emiliara

Reggioko zelaia 2013an Sassuoloren etxe bihurtu zenetik, han herriko taldeak ere jokatzen duela ezkututzen saiatu da multinazional italiarra. Inork espero ez zuenean eta Reggianari zein Udalari emandako hitza jan ostean, ekarri zuen Squinzi Sassuolo Reggiora. Enpresak hitz emandako irabazien izenean Modenako taldeak

» Hiriko futbol zelaia-
ren jabetza Mapeiren esku
izatea ez dute onartzen
Reggioko herritarrek.
Multinazionalaren
jabetzakoa ere baden
U.S. Sassuolok hara
jokatzera eraman
izanak piztu zuen
zaletu eta jabe berrien
arteko gerra

» Futbol zelai erosi
berrian Mapeik ezarri
nahi dituen aldaketen
aurka kalera atera dira
Reggiotarrak

bere hiria eta zelaia utzi behar izan
zituen Reggio Emiliara emigratzeko.
Erabaki horren inguruan jarraitzaileek
zer esaten duten jakitea interes-
garria litzateke.

“Mapei-k bere jabetzak elkartu nahi
ditu, horrela irabazi ekonomikoak
handituko dituelakoan”, zioen “*Sassuo-
lo via da Reggio*” (Sassuolo Reggiotik
kanpora) inizatibaren antolatzaile-
tako batek pasaden igandean *Gazet-
ta di Reggio* egunkarian. Mapeik bere
jarduna promozionatzeko leku apro-
posa bilatu du futbolearen. Halere, bere
asmoak kolokan jarri nahi dituen za-
legoarekin egin du topo Mapeik Reg-
gio Emilian. Mobilizazioak antolatzeaz
gain, zaletuek Reggio Emiliako udalari
esku har dezan exijitu diote.

Gaur gaurkoz *Mapei Stadium* izena
hartu duen futbol zelaian talde baka-
rrak jokatzeko duela dirudi. 1990ean
kapital handietatik urrun eraiki zen
futbol zelaia kapitalak berak du az-
piratzen. Sassuolok lehen mailan jo-
katzen du eta Reggianak 2.B mailan.
Reggiana eta inplikazioa ala Sassuolo
eta irabazi ekonomikoak. Eta erdian
desjabetuta dagoen sentimendua. ■



PRIMA PAGINA REGIO

Reggianako zelatuen protesta: “Oggi giochiamo anche noi” (gaur geuk ere jokatzeko dugu).



Mapei multinazionalak Reggianaren sinbolo eta koloreak harmailetatik ezabatzeko
asmoari erantzunez kalera atera dira zaletuak.

GAZZETTA DI REGGIO

Euskal Elkargoa

POSIBILISMOAREN BIDEAN

Frantziako Estatua Errepublika denez geroztik, lehen instituzio politikoa eratu da Ipar Euskal Herrian; Errepublikaren Lurralde Antolaketa Berriaren baitan, NOTRe legearen markoan. Euskal Herri Elkargoa du izena, *Communauté Pays Basque*. Sortze beretik, izenak berak hainbat dilemma sorrarazi du. Aglomerazioa, hirigune, herri eta lurralde izenordeak ere eman baitzaizkio.



Mikel Asurmendi
@masurmendi

Euskal Elkargoa da euskarazko hedabideok lehenetsi dugun izena. Izena duenak izana du. Hau da, nortasuna. Berezko identitatea. Iparraldean iragan mendean ernatu zen euskal abertzale-tasunik gabe, gaur egun ez zen berezko instituziorik egongo. Alta, bere eraketak abertzaleen artean sorrarazi du ez bai eta mesfidantza gehien. Badaude bestalde, “zalantza demokratikoa”ren izenpean, instituzioaren kontrakoak, frantses alderdi guztiak zeharkatzen dituen jakobinismoaren ildoan ari direnak.

Euskal Elkargoaren lehen batzar ofiziala urtarrilaren 23an izan zen. Batzarrak zertu ahal izateko, erakundearen gidaritzako kideek Gobernantza eta Fiskalitate gaietan oinarritzko akordioak erdietsi behar izan zituzten. Haatik, Elkargoaren aurkakoei ordurako hirugarren helegitea jarria zuten erakundearen sorrera galarazteko. Era berean, Euskal Elkargoak hizkuntza eta kultura politikaren eskumena bere gain hartuko zuela baieztatu zuen, Euskal Konfederazioa eta Euskaltzaindiaren eskaera hobetsiz.

Jean-René Etchegaray da presidentea. Politikari zentrista eta Baterako kidea.

Abertzaleen aldarrikapenak bere egiten ditu. Ziur aski, frantses jakobinistek eta euskal abertzaleek iritzi haxe partekatzen dute: Baionako auzapeza (Etchegaray) egitasmoan engaiatu izan ez balitz, gaur egungo egoera politikoa bestelakoa litzateke Iparraldean. Euskal Elkargoaren sorrerak galdera franko aireratu ditu solastoki politikoetan, alde batean zein bestean. Etchegarayk politikaren erdialdea ordezkatzen du. Hona galdera horietako bat: posible al da abertzaletasuna eta jakobinismoaren arteko bateragarritasuna?

Euskal Elkargoak lehen urratsa eman zuen: ezagupena. Egun berean, euskal instituzioen aldarrikapen historikoak bete ahal izateko zorua aurkeztu zuen. Abiatzeko oinarritzko bost puntuak hauexek dira: 1. Herriarteko egitura. Herri guztietako ordezkarien eta biztanleriaren arabera proportzionalki eratua izatea. 2. Eskumenak. Orain arteko hamar herri elkargoen eskumenak jaso ditu: hirigintza, herriarteko garraioa, hondakinen antolamendua... 3. Aurrekontua. Iraganeko hamar elkargoek erabilitako diru bera dauka. Arlo gehiago garatu ahala eskumen gehiago eskura-



tuko ditu, baita aurrekontua handituko ere. 4. Lurraldetasuna. Ez du berezko eskumenik, baina, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa ordezkatzen du lehen aldikoz historian. 5. Bilakaera: elkargoak eskumen urriak ditu, ageri denez. Hau da, autonomia mailako erakundea erakitzeke beharrezkoak diren eskuduntzak izatetik urrun dago. Erakundearen bilakaeran arabera garatuko da bere ahalmena. Ahalmena, instituzioaren ordezkaritza politikoen indar korrelazioaren eta herritarren bultzadaren arabera izanen da.

NOTRe legeak ahalbidetu du Euskal Elkargoa, oraingoz ordea, berau eraikitzeke zorua besterik ez dago. Frantses zuzenbidearen markoan egin behar du bide. Abertzaleen aldarrikapen historikoek ez dute *de facto* instituzio berriaren lekuri. Tokiko eragile politikoek –alderdiak buruan buru– lortuko duten adostasunen arabera behartuko dute frantziar legaltasuna. Konparazioa, Hexagonoan frantsesak ez beste hizkuntzak ez du izaera ofizialik, beraz, euskarak ere ez. Lehen batzarrean, Hendaia-ko hautetsi (EH Bai) Iker Elizalde euskara



Jean-René Etchegaray Euskal Elkargoko presidente izendatu zuten egunean.

eta frantsesa erabiltzea galdatu zuen. Bokaleko Francis Gonzalez hautetsiak uko egin zion eskaerari, “Frantzian gauden” ozenki erranez. Angeluko Guy Mon-dorge hautetsiak berretsi zuen haren errana, gaskoia euskararen mailan baliotsiz. Etchegarayk duda-muda guztiak uxatu ditu: “Frantses zuzenbidea da nire muga”. Batera mugimenduko kide eta abokatuak legea ongi ezagutzeaz beste, desioa eta errealtatea bereizten ditu. Euskararen koofizialtasuna bere egiten du, baina instituzio berriaren egonkortasuna ziurtatu nahi du lehenbizi. Beraz, instituzioaren jardueran euskarak ez du lekurik. Erakundearen aktak, esaterako, ez dira euskaraz jasoko.

Otsailaren 14an, Elkargoaren Batzorde Eragileko kideen izenak eman ziren ezagutzera. Elkargoaren kidetasunaren eitea honako hau da: hautetsien ordezkariak askotarikoa da, baina zentro-eskuineko ordezkariak nagusi dira batzordean. Oro har, EH Bai koalizioaren eta Les Républicains alderdiaren ordezkariak dute ordezkari gehien, launa kide. PSk, UDik, MoDemek eta EAJk bana. Identifikazio ideologikoa agerikoa da.

Praktikan, hala ere, hautetsi gehienek alderdi horien siglarik gabe hautuak izan ziren eta halaxe dihardute. Besteak beste, Hiriburuko auzapez Alain Iriart, Miarritzeko hautetsi Peio Claverie eta Izpurako auzapez Daniel Olzomendi abertzaleak daude. Alabaina, badaude ere Angeluko auzapez Claude Olive, Euskal Kostako-Aturri Hiriguneko presidentea, Bidarteko auzapez Emmanuel Alzuri eta aipatutako Francis Gonzalez. Izendapenak indar korrelazioaren logikaren barnean egin dira, alta, ez da logikoa azken horiek instituzioaren aurkako hiru helegiteak jarri dituztenen artean egotea.

Elkargoaren presidente Etchegarayk “adostasuna eta oreka” ditu hitz kuttun. Izendapenen artean, Beñat Arrabitenak eman du zer esana. EAJko kidea da, Arrosako auzapeza eta Garazi-Baigorriko herri elkargoko presidente izana. Elkargo berriko presidenteordea eta hizkuntza politikako arduraduna da. Ezker aldeko abertzaleak eta euskaltzaleak “ustekabeen” harrapatu ditu izendapenak. Beñat Arrabitek aitortu duenez, berak ere ez zuen izendapena espero. Hizkuntza saila garatzeko bitarteko berririk ez duela adierazi du

» Batzorde Eragileko izendapenak indar korrelazioaren logikaren barnean egin dira, ez da logikoa baina, instituzioaren aurkako hiru helegiteak jarri dituztenen artean kargudunak egotea

» Frantses jakobinistek eta euskal abertzaleek iritzi hauxe partekatzen dute ziur aski: Baionako auzapeza egitasmoan engaiatu izan ez balitz, egungo egoera politikoa bestelakoa litzateke Iparraldean

halaber. Esaterako, Euskararen Erakunde Publikoa (EPP) Euskal Elkargoan uztartzea omen du lehen zeregina. Abiaburuan deus berririk ez dago. Elkargoaren inguruan ezagutu den berririk esanguratsuen sinbolikoa izan da. Otsailaren 2an, Etchegaray –ofizialki izendatu aitzin– eta Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkullu Baionan bildu ziren. Bi instituzioen arteko harreman izaera zehazteko lantalde baten sorrera iragarri zuten.

Zenbat buru hainbat aburu. Alabaina, Iparraldeko izaera politikoaren aldarrikapen historikoari begiratzen badiogu, ez da beste bi lurraldeen –EAE eta Nafarroako Foru Komunitatea– bilakabidetik horrenbeste aldentzen. Herri aitzindari-tzan ari diren eragile politikoek estatuen “legaltasunaz haragoko” aldarrikapenak sustatzen dituzte eta “legea”ren jabe direnek aldarrikapenak egokitzen dituzte abagune politikoaren arabera. Nafarroan legez, EAJ abertzaleen gutxiengoa izanagatik, Iparraldean ere, EAJk bere urratsa eman du bertako lehen instituzio historikoaren eraketa eman orduko. Izaera horrek izen-abizenak ditu: posibilismo politikoa. ■

Juan Martin Elexpuru, SOS Iruña-Veleia elkarteko kidea

“Irudipena dugu probak, ezkutuan bada ere, eginak daudela eta ez dutela faltsutasunik aurkitu”

Hor da beti Iruña Oka udalerria Arabaren erdi-erdian. Hor da beti Iruña-Veleiako aztarnategi erromatar garaikoa. Hor da beti egiazkoak diren, faltsuak diren, bertan aurkitutako ostraka edo grafitoak. Oinezkoak egia jakin nahi...



Miel A. Elustondo

ARGAZKIA: JUAN MARTIN ELEXPURUK UTZIA

Zertan da kontua, auzia, “aferra” edo dena delako korapilo bihurria?

Zortzi urte igaro eta gero, joan den ekainean amaitzen zen, legez, auzia instrukzioan edukitzeko epea. Bost urte baino gehiago irekita zeramaten kasuak itxi egin behar ziren. Honek, zazpi urte zeramatzan arren, urte bat gehiago luzatu zen epea. [Aztarnategiaren zuzendari] Eliseo Gilen abokatuak errekurtsioa jarri zuen eta, oraindik orain, epaitegiaren jakinarazpena jaso du, esanez errekurtsioa onartzen dutela, ez zegoela zertan luzatu instrukzioa, justifikaziorik ez zuela, hartu beharra zegoela erabakia. Jakinarazpenak arrazoitzen zuen, hala ere, erabakia ez zela hartu Eliseo Gilen abokatuaren eskariagatik, fiskaltzak egindako akatsagatik baizik, epea pasata gero egin omen zuelako luzatzeko eskaria! Surrealista. Alegia, esan nahi dut laster batean jaso dezakegula ebazpena, edo auskalo noiz. Desesperagarria da. Baliteke gaur esaten dugunak bihar balioa galtzea.

Non da korapiloa?

Zortzi urte eta zerbait daramatza auziak instrukzio-fasean, eta fiskalaren akusaziorik ez dago oraindik. Poliziaren txostena eginda dago –irakurria dugu–, eta

han ez da delitu zantzurik batere. Arrasorik ez. Instrukzioaren luzapena guztiz ezohikoa da –Euskal Herrian dugun auzirik zaharrena da–, eta hori, epaileak eta fiskalak zer egin ez dakitelako, ziurrenik. Epaiketa bera akusatzaileen [Arabako Foru Aldundia] kontrako bihur daiteke, trapu zahar asko argira atera daitezke... Epaietarik egiten ez bada, aldiz, barregarri geratuko dira, zortzi urtean faltsukeria aldarrikatzen ibili eta gero.

Eta zertan da ostraken egiazkotasunaren korapiloa?


Iritzi guztiz kontrajarriak daude horren inguruan. Batetik, Arabako Diputazioaren ekimenez, gehienbat EHUko irakaslez osatutako batzordeak ebatzi zuen ostrakak faltsuak direla. Bestetik, urte hauetan pisu handiko hainbat zientzialarik, atzerritarrak asko, kontrakoa esan dute, hau da, ostrakek benetakoak izateko itxura dutela. Hogeitazosten egin dituzte zientzialari horiek. Gehienek ez dute lotura afektiborik Euskal Herriarekin, ez dute batera edo bestera jarduteko presiorik, eta horiek diote ostrakek benetakoak izateko itxura dutela. Edward Harris, Van den Driessche, Rodriguez Colmenero, Luis Silgo, Ulrike Fritz...

Horien ondoan, orde, ostraka eta grafitoetan ageri diren euskarazko testuak faltsutzat ematen dituzten adituak ditugu. Zenbat buru, hainbat aburu?

Bataren hitza bestearenaren kontra. Baina hor dira txostenak, hor argazkiak, hor aztarnategi ondo dokumentatua –ostraken argazkiak, transkripzioak, iruzkiak...–, eta jendea, berriz, axalekoan geratu da. Hedabideek ere, hasieran, arreta handia eman zioten aurkikuntzari. Alde jardun zuten lehenengo, gero kontra, modu akritikoan. Ondoren, mugimendu nahiko indartsu bat izan da ostraken benetakotasuna defenditu duena: 2009an publikatu nuen nik *Iruña-Veleiako euskarazko grafitoak*, Hector Iglesias filologo lapurtarrak 400 orrialdeko txostena idatzia du frantsesez...

Alberto Barandiaranen *Veleia aferra* (2010) beste aldera.

Bai. Eta jendeak ez du zertan batari edo besteari sinetsi. Jendeak egia nahi du, ez besterik, eta gaur egun gauza hauek ebidentzia fisikoen arabera argitu daitezke. 2009an, esaterako, bai Lurmen enpresak eta bai SOS Iruña-Veleiak eskatu zuten Europako arkeometrian espezializatutako zenbait etxek grafitoak



"2008tik hona faltsutasunaren aldekoek ez dute ezer idatzi, interneten bazterrak nahasteko ez bada, izen faltsuak edo ezizenak erabiliz".

aztertzea –aurkeztu zen aurrekontua, ez oso garestia–, baina epaileak ez zuen onartu eta bere horretan dago kontua. Uste dugu astebetean konpon zitekeela auzi hau, eta, neurri batean, baita Euro-para joan gabe ere.

Ez da filologoen gorabehera, beraz.

Ez filologoen, ez arkeologoen... laborategi espezializatuen garaia da.

Komunitate zientifikoaren kontra ari zarete.

Bai eta ez. Zein duzu komunitate zientifikoa? Joakin Gorrotxategi, Joseba Lakarra eta Isabel Velazquez? Horiek

bakarrik? Batzordekideez aparte, ia inor ez da faltsutasunaren alde lerrokatu publikoan. Joan den zortzi urtean nor busti da kontu honetan? Konturatzeko zara hamar txosten idatzi zirela –sei, faltsutasunaren alde garbi–, baina horietako bat ere ez dela publikatu? Zergatik ez da publikatu, unibertsitateko irakasleak beren artikuluak aldizkari indexatu eta espezializatueta publikatzeko irrikan bizi dira! Inork ez du hitzik argitaratu. 2008tik hona faltsutasunaren aldekoek ez dute ezer idatzi, interneten bazterrak nahasteko ez bada, izen faltsuak edo ezizenak erabiliz.

Zer irabaziko dugu, zer galduko, epaileak erabakia, zeinahi dela ere, hartzen duen?

Ez naiz igarri, ezin esan zer erabakiko duen epaileak. Logikoena litzateke gaia artxibatzea; epailearen esku dago delitua egon den, edo ez, erabakitzea, ez ostrakak benetakoak edo gezurrezkoak diren esatea. Delitu zantzurik ez bada, logikoena litzateke auzia artxibatzea, Arabako Diputazioak piezak liberatzea –bera du eta ondarearen jabetza, jabetgo intelektuala Lurmenek badu ere, berak aurkitu zituelako–, eta Espainiar Estatutik kanpo dauden laborategi espezializatuen esku uztea. Londresen, Belgikan, Alemanian... prest dira, harremanak izan ditugu.

Ez du ematen zerua eskatzen ari zaretenik.

Logika hutsa eskatzen dugu, ez besterik. Irudipena dugu probak, modu ezkutuan bada ere, eginak daudela, eta ez dutela faltsutasun frogarik aurkitu. Hemen egin diren irregulartasunen artean, bat izan da 2008ko azaroaren 19an –E eguna, alegia–, erabakia hartu zen egunean, txosten bakarra zegoela entregatuta: [Joakin] Gorrotxategirena. Gainerako bederatzi txostenak ez zeuden entregatuta, eta batzuk, seguru asko, idatzita ere ez. Txostenok gero etorri ziren, hurrengo egunean, edo astebetera, edo hilabetera. Horixe izan zen lehen irregulartasuna.

Zer esan nahi duzu?

Ebazpenak dio "zientzialariek aho batez" hartu zutela erabakia, baina ez da egia, txosten bakarra zegoen-eta entregatuta ordurako. Beste irregulartasun bat, handia, auzitegiari dagokiona, izan zen piezak kereila jarri zuenaren esku uztea, hau da, diputazioaren esku. Hori sinestezina da! Euren zaintzapean izan dituzte ostrakak, euren gustuko grafologo eta eskuek erabili dituzte piezak, zer egin den, eta zer ez, ez dakigula.

Gure herriko kultur elitearen utzikeria salatu izan duzu inoiz han edo hemen.

Euskal komunitate politiko eta kulturalaren jokaera eskasa. Sinesteak gorabehera, batere ez sakondu nahi izatea dago eta, momentu batean, zentsura ezartzea bestela pentsatzen dutenei. Zentsura hori nabarmena izan da he-dabideetan. Gauza asko egin ditugu SOS

HEZURRETAN

“Badira berrogei bat grafito, hezurrean eginak. Horiek, karbono-14ren bitartez datatu daitezke. Izan litezke hezurak zaharrak, eta berriak idazkunak, baina hezurretan adituak lehenengo begiratuan, edo bigarreanean, igarriko dio idazkun horiek zaharrak edo berriak diren. Duela bi mila urteko hezurrean era batera grabatzen da, edo hobeto esan, ezin da

grabatu, zeren ez dauka kolagenorik eta hautsi egingo da. Besterik da orain dela hilabeteke hezurrean. Hor daude, beraz, karbono-14a, batetik, eta adituaren begia eta tresneria bestetik. Horretaz ere egina dago txostena, Ramon Baxarias paleo-osteologo katalanarena. Euskal Herrian ere baditugu hezurretan adituak, eta agian bustitzeko garaia heldu zaio baten bati”.

Iruña-Veleiak, Euskararen Jatorriak, Martin Ttipiak... Elkarretaratzeak, kongresuak, bisita gidatuak, hitzaldiak... eta horietarik ia ezer ez da hedabideetan agertu. Guk bidalitako iritzi-artikuluak publikatzeko ere lanak. Bada hedabideren bat, lau-bost urtean Iruña-Veleia hitza paperean idatzi ez duena. Eta ez dut izenik esango! Kar, kar...

Zentsura?

Zentsura ez bada, latineko *damnatio memoriae* ote da, bada? Zer da Iruña-Ve-


leia tabu bihurtze hori? Ez dakit hitza zentsura den, edo itzalaldi informatiboa, baina hori hor dago.

Hemendik atzera zer?

Epailearen eskuetan gaude, oraintxe ezin dugu besterik egin, itxaron baino; zarata ateratzeaz aparte, jakina. Kasua artxibatzen badu, indar egin beharko dugu piezok behingoz askatzeko eta dagokien bidea emateko. Epaiketarik bada, berriz, indar egin beharko da alde guztietatik epaiketa justua izan dadin.

Zergatik gertatu da hau?

SOS Iruña-Veleiatik egiten dugun irakurketaren arabera, euskal filologoak izan ziren ostraken egiazkotasunaren kontra agertzen lehenak. Zergatik? Grafitoetan agertzen den euskara eta beraiek irudikatzen duten orain dela bi mila urtekoa, ez datozelako bat zenbait puntutan. Bestalde, EHUK aspaldi bereganatu nahi zuen aztarnategia, zelo ikaragarriak zituena Lurmen enpresa pribatuarekiko. Arrazoi gehiago? Euskalduntze berantiarren lobbyaren presioa, esanez garai hartan Araban ez zela euskararik egiten, derrigor faltsuak izan behar zirela... Vatikanok ere badirudi muturra sartu duela. Azkenik, politikarien eskuhartze eta erabakiak ditugu. Erabaki hura hartu zenean, EAJkoa zen ahaldu nagusia, EAKoa Kultura diputatua, erabakia proposatu eta sinatu zuena; orain EH Bildukoa da, eta horrela arku politiko guztia blokeatuta geratu zen; hau izan liteke isiltasuna esplikatzeko gakoetakoa bat. Saltsa-maltsa handia izan da, interes mordoak pilatu da, interes ezberdinak, korapiloa estu-estu egin dutenak. ■



Kalean da martxoko

aizu!

- Ordiziako azokara bisitan
- Karakaten, arbasoen arrastoan
- Beñat Muguruza, arin-arin
- Argantzón ikastola Argantzunetik at
- Korrika Kulturala denak emanda

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizu.eus

I. Gonzalez eta M. Ruiz [Autismoa du haien semeak]



Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
@eagirrebeng

“Ez dakigu zer gertatuko zaion gure semeari aldamenean ez gaituenean”

Isabel Gonzalez eta Manuel Ruiz gara, Bilboko senar-emazte bikote bat. Gure seme Ramonek Asperger sindromea dauka. Autismoa soilik haurren arazo gisa ikusten da maiz, baina haur horiek hazi egiten dira, eta horrekin batera, buruhauste berriak datoz. Gaur egun 40 urte ditu Ramonek, eta asko kezkatzen gaitu bere etorkizunak.



Autismoa duen gaztea, lan-merkatuan integratzeko proiektu batean, AEBetan.

Bost urte zituenerako diagnostikatu zuen autismoa. Zantzu nabariak ez zituen, baina sumatzen genion zerbait. Denboraren joanean, geroz eta nabarmenago ikusten zen bazuela zerbait berezia. Azkenean Asperger sindromea diagnostikatu zioten, baina nahikoa lan izan genuen diagnosi zuzena jasotzeko. Autismoaren fenomenoaren azalpena ezagutzen zen garai hartan, eta psikiatra batzuek ez zuten behar besteko jakintza.

Autismo Espektroaren Nahasmenduaren barruan, Asperger sindromea da gaitzik arinenetako bat. Ramonek ez du atzerapen intelektualik. Gai da hitz egiteko eta gauzak arrazoiatzeko. Alabaina, errealitatea beste begi batzuekin ikusten du, eta zailtasunak ditu egoera jakin batzuetan giza harremanak behar bezala garatzeko. Eskolan, kasurako, oso gaizki pasa zuen. Memoria fotografikoa dauka, eta beste umeek baino lehenago ikasi zuen irakurtzen. Gainera, bere adineko ume batentzat normalak ez ziren gaiez hitz egiten zuen. Hor tentsioak sortu ziren, eta harremana gaitzotzen joan zen.

Azkenean, Lehen Hezkuntzan zela, eskola-jazarpena sufritu zuen. Gainontze umeek bazterrean uzten zuten. Esperientzia horrek, normala den bezala, kalte handia eragin zion. Integrazioa oso garesti ateratzen zitzaion gure semeari. Oso polita da halako arazo bat duen umea gainontzekoekin nahastea, baina horretarako egoera kudeatzen dakien profesional bat behar duzu. Bestela, kalteak besterik ez dira eragiten.

Ramonen kasuan, irakasleek ez zuten autismoa zuen ume batekin lan egiteko beharrezko formakuntza. Orduz geroztik aitzinamenduak egin dira alor horretan, eta uste dugu gaur egun autismoa duten umeek aukera gehiago dutela. Hor, azpimarratu beharra dago autismo elkarteek egiten duten lana. Bere garaian Ramon Bilboko elkarte batean aritu zen, eta ondo etorri zitzaion bizitzaren arrunteko egoeretara ohitzeko.

Gure aburuz, elkarte eta zentro hauetan dago autismoa duen jendearen garapenerako gakoak. Bertan bizitzaren soziala garatzen laguntzen zaie, eta hori da benetan indartu behar dena. Beste biderik ez dago

pertsona hauek gizartean behar bezala integratzeko. Bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako formakuntza eskainiz gero, asko handitu daiteke beren independentzia eta, oro har, bizi kalitatea.

Helburua handitan pertsona independenteak izatea da. Oso triste da baita behin helduak direnean, txoko batean bazter uztea. Orain ataka horretan gaude gu. Oso kezkatuta gaude, ez baitakigu gure semeari zer gertatuko zaion aldamenean ez gaituenean. Etorkizuna ez dugu batere garbi ikusten. Non egongo da? Norekin? Gustura egongo da? Itaun horientzako erantzunik ez dugu aurkitzen.

Instizuetatik ez digute alternatibarik eskaintzen. Badirudi erresidentzia batean sartzea dela aukera bakarra, eta guk ez dugu Ramonentzat halakorik nahi, bada-kigulako ez litzatekeela eroso sentituko. Hori dela-eta, uste dugu erakundeek zabaldu egin beharko luketela alternatiba sorta. Formazio egokia duen jendea asko dago; beraz, gauzak behar bezala antolatzea baino ez da behar. Gure ustez, hor dago irtenbidea. ■

Tortotx garbia



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Estimatzeko intentzio osoarekin sagardo botila bat ireki, edalontzia sudurre-ra hurreratu eta botila itxita izan duen tortotxaren usaina hartzea, horixe infernua!

Tortotxa deabruetara eramateraino usain desatsegina eransten dion osagaiak TCA du izena (2,4,6-trikloroanisol), ia beti. Naturala da berez, eta uretan, kafean, fruituetan, barazkietan, zurean eta lurrean bertan ere aurki daiteke.

Tortotxa edo kortxoa tortotxondoa-ren edo artelatzairen (*Quercus suber*) azala da, ez alferretan zuhaitzari kortxondo eta kortxo-haritzta ere deitzen zaio. Portugal da munduko artelazki esportatzaile handiena; datua argigarria da: bere esportazio guztien %1,2 artelazkia da. Horrek bere kulturako paisaiako zuhaitz adierazgarrienetako bat zaintzea dakar. Santa Maria de Lamas herrian dago artelazkiaren bihotza. Han dago azal horren ikasteko eta ikertzeko gunerik ezagunena: Cincork; baita artelazkia lantzen duen munduko enpresarik handiena ere: Amorim. Hain zuzen, Amorimek garatu eta patentatu du makina baten ametsa: edariari kortxo-usainik erantsiko ez dion kortxoa. Erresuma Batuko Cambridgeko enpresa batekin uztarrian, zehaztasun handiko kromatografia teknika aurreratu eta batez ere azkar bat sortu dute: kortxo bakoitza banaka-banaka aztertzen da segundo gutxi batzuetan, eta kirats arrasto ttikiena duena bazterrerara.

Sagardoari kortxoaren kiratsa eransten dion TCA hori ez antzemateko moduko muga sinestezina jarri dio bere buruari etxe horrek: 0,5 nanogramo litroko, hau da, trilioitik bat, 800 pizsina olinpikotan ttantta bat, alegia. Lehenaz gain, Amorim hori izango da berriz ere kalitatezko edarien botilaratzaileen besoetakoa.



Portugal da munduko artelazki esportatzaile handiena, eta hangoa da kortxo egile handiena ere: Amorim. Edariari usainik utziko ez dion tortotxa patentatu du enpresak.

SUSTMEME

Berezko sagardo bereziak sortzeko joera berpizten ari den honetan, zurezko barrikak bueltan datozen era berean,

ea baten batek kortxo hauek sartzen dituen, sagardoaren usainaren eta gustuaren mesedetan. ■

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA MUNDUAN

Pauso txikiak, baina aurrera



Garazi Zabaleta
@tirikittrann

Munduan nekazaritza ekologikoa hazten doala, horixe da Nurembergeko (Alemania) BioFach 2017 azokan argitaratu eman dituzten estatistiken ondorio nagusia. Nekazaritza Organikorako Ikerketa Institutuak (FiBL) eta IFOAM elkarteak urtero ateratzen duten *Nekazaritza Ekologikoaren Mundua* ikerketa otsailaren 15ean aurkeztu zuten.

Nekazaritza ekologikoaren errekor berria

Azken urteetako hazkunde joerak jarraitu egin du 2015ean ikerketaren arabera, eta produktu ekologikoen eskaria ez ezik, eskaintzak ere gora egin du. Nekazaritza ekologikoko 50,9 milioi lur hektarea erregistratu zituzten mundu osoan, eta merkatu ekologikoaren hazkundeak 80.000 milioi dolarretaraino iritsi zen. Esanguratsuak dira datuok, 1999koekin alderatzen baditugu: 11 milioi lur hektarea zeuden garai hartan ekoizpen ekologikoan, eta 17.900 milioi dolarreko mugimendu ekonomikoak. Hamasei urtetan, beraz, hazkundeak nabarmena izan da.

Txostenaren arabera, 2015ean 179 herrialdek zituzten martxan jarduerak

ekologikoak (aurreko ikerketako 172 herrialderen aldean), eta 2,4 milioi nekazarik ziharduten ekoizpen ekologikoan lanean. Hala ere, eta emaitzen alde positiboari garrantzia kendu gabe, aipagarria da munduko nekazaritza lur guztien %1,1 soilik zirela ekoizpen ekologikokoak. Oraindik egiteko asko da goenaren seinale.

Inguruko herrialdeetan ere antzeko mugimendua

Espainiako eta Frantziako estatueta-ko emaitzetan ere islatu da nekazaritza ekologikoaren goranzko joera hori. Espainiako Nekazaritza Ministerioak ateratako datuen arabera, 2015ean ia 2 milioi hektarea hartzen zituzten ekoizpen ekologikoko lurrek estatu osoan. Europako herrialdeen artean lehen postuan zegoen, eta mundu mailako laugarrenean. Frantziako lurren kasuan, 1,4 milioi hektarea ziren ekoizpen ekologikokoak. Produktu ekologikoen kontsumoaz hitz egitean, ordea, datuak bestelakoak dira: etxeetan kontsumitutako elikagaien %2,5 ekologikoak ziren 2014an Frantzian, eta Espainiako kontsumoaren %1,5a. ■

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

www.bizibaratzea.eus webguneko edukia zure e-postan jaso ditzazun, buletin eder bat ari gara prestatzen. Bertan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakanra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Martxoaren 10 eta 17an Donostian "Baratzea nire balkoian" ikastaroa

Kutxa Ekogunea parkean izango da, 16:00etatik 19:00etara. Oinarritzko ezagutzak azalduko dira eta bakoitzaren balkoiaren ezaugarriak kontuan hartuz diseinu posible bat egingo da. Prezioa: 33 euro.

Martxoak 11: Lekaroz Bertako Haziaren Eguna

08:30ean fruta-arbolak neguko txertoen ikastaroa egingo da, 11:30ean hazien trukea, eta 12:30ean, Jakoba Errekondok *Bizi Baratzea* liburua aurkeztuko du eta entzuleen zuzeneko galderei erantzun die.

Martxoak 15: Iruñea Bizi Baratzea hitzaldia

19:00etan, Ingurumen Heziketarako Museoa. Astero eskaintzen du museo honek hitzaldi bat, eta Jakoba Errekondorena izango da euskaraz eskainiko den lehena.

ZURE HERRIKO AZOKAREN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

Agenda osoa noiznahi ikusteko:

www.bizibaratzea.eus

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

SOLTE TALDEAREN "IXA" DISKOA

1

Solte taldearen erritmo biziak "Ixa" diskoan

Santutxutik datorren taldea dugu Solte. Bertan hasi ziren proiektu hau garatzen 2006. urtean. Aurten, 10. urteurreneko ospakizun bezala, disko berria kaleratu dute eta berau zozketa-gai izango dugu martxoan zehar. "IXA" du izena lan berriak, izerdi, gogo eta mimoz autoekoitzitako lana. Bertan, aurreko diskoetan bezala (Distantzia Nahikoa!

eta EroAlea), erritmo biziak topatuko ditugu, hardcorea beste estilo musikalekin (rock, metal...) nahastuaz. Taupaka elkartearen sinadurarekin kaleratu dute lan luze hau, Gorka Armendariz (leihotikan), Ines Osinaga (Gose), Oihana Bartra (bertsolaria) eta Aitor "DJ Kanaky" (norte apache) bidai lagun izan dituztelarik.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



TAUPAKA

www.solte.net
info@taupaka.com
(0034) 688 840 713

#oroimen-historikoa
#ingurumena
#36ko gerra

Martxoko sariak

1



Finalaurrekoetarako eta finalerako sarrerak
Lau sarrera saioko

2



Solte taldearen Ixa diskoa
5 KD

3



Palestinako ipuiak
4 liburu

4



Lekore
3 sorta

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | guinea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



Grabatzea ez da delitua



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Polizia grabatzeko deia egin ez digute ba oraingoan... Bulegoren batean imajinatzan dut dagoeneko norbait: "ARGIAko hauek konfliktibo xamarrek dira, eta noski, gero laguntzak jasotzean kexatu egingo dira". Tira, oraingoan ez dira ARGIAkoak bakarrik, tartean dira Topatu, Ahotsa, info, Hala Bedi eta Ekinklik hedabideak eta Eleak/Libre mugimenduarekin elkarlanean. 'Grabatzea ez da delitua' bideo erreportaje sorta hasiak dira publikatzen.

Bidea estutzen ari dira nazioartean bezala gure bazterretan gune publikoetan gertatzen dena eta funtzionario publikoen jardura libreki kontatzerako orduan. Mozal Legea tamalez ezagunegi zaigu dagoeneko, eta zalantzan jarri da herritarrok bezala kazetariok jardura horiek grabatu edo horien berri emateko dugun eskubidea. Oinarri horretatik abiatutako bideo erreportajeak dira hilabete honetan *Grabatzea ez da delitua* izenaren azpian ikusi ahal izango ditugunak.

Donostiako Bulebarreko "kazetaria naizela! Kazetaria naizela!" oihuak ditut go-

goan, Gazte Topaguneko ekitaldi publiko bateko irudiak argitaratzeagatik Audientzia Nazionalera bisitan joan behar izan zuen laguna ere bai, polizia gehiago grabatzekotan Mozal Legea aplikatuko zietenaren abisua jaso zuten kazetarien kasua ezin ahaztu, edo zenbait txiotan polizia operazio bateko irudiak plazaratzeagatik epaituko duten kidea ere badatorkit burura. Kolpeak. Isunak. Zergatik eta kalean gertatzen denaren edo poliziak egiten duenaren berri emateagatik. Beldurraren estrategia funtsean.

Ikus-entzunezko bildumatxoa beldurrari aurre egiteko elkarlanean oinarritzen da, eta helburu garbia du: gaiaz hitz egitea, eta herritar edo kazetari bezala ditugun eskubideak bezala legeak honen aurrean jartzen dizkigun mugak ezagutzea; inork zalantzarik izan ez dezan kamera pizteko eta kazetariok gure lana askatasunez egiteko. Lau erreportajeetatik bi argitaratu dira, eta datozen bi astelehenean publikatuko dira besteak, gaiaren ertz ezberdinak landuz. ■

"(ARGIAkoa egin naiz) egun daukagun euskal hedabiderik oso eta kalitatezkoena delako, bizitza erdigunean kokatzen duelako, herriaren ahotsa delako..."

Lohitzune,
ARGIAkoa



Martxoaren 13an, ARGIA Mozalik gabe epaiketa

Mozal Legeak zigortutako lehen kazetaria da Axier Lopez eta delitutzat hartu duten ekintza, kazetaritza egitea: Poliziak egun argiz eta kalean egindako atxiloteta baten argazkiak sare sozialetan zabaltzea. ARGIAko langileok batzarrean erabaki genuen isun hori ez ordaintzea eta Mozal Legearen aurkako defentsari ekiteta, lege injustu hau auzitan jartzea.

Martxoaren 13an, astelehena, 9:30ean Gasteizko Auzitegian izango da epaiketa. Eleak/Libre mugimenduak elkarretaratzea deitu du atarian 9:00etan: bertan batuko gara Mozal Legearen aurka agertzeko eta Axier Lopez babesa emateko.

Zure atxikimendua adierazteko aukera duzu, sare sozialetan #argiamoza-likgabe ekimenaren parte hartuta: bidali zure argazkia ARGIA eskutan duzula, ahoa itsasgarri estalita, edo gaia islatzeko egokien iruditzen zaizun moduan.

DUELU EMANTZIPATUA TOPLESSEAN



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**
@irazustabarrena

Vaduz (Liechtenstein), 1892ko abuztua. Pauline Metternich printzesa eta Kielmannsegg kondesa elkarren aurka borrokatu ziren, ezpatazko dueluan. Ez zen bi emakumeren aurkako lehen duelua, XVII. mendearen erdialdean Frantzian zegoeneko halakoak aipatzen ziren eta Ingalaterran, mende bat lehenago, 1792an, egin omen zen lehena, Lady Almeria Braddock-en eta Elphinstone anderearen artean, lehenaren adinari buruzko eztabaida konpontzeko.

Eta, hala ere, Vaduzeko hark oihartzun handia izan zuen eta "lehen duelu emantzipatua" esan zioten. Bi lehiakideez gain, horien ordezkari eta laguntzaileak emakumeak ziren, baita duelua antolatu eta gidatu zuen Lubinska baroisa ere. Lubinskak berak agindu zien ezpatariei armak astintzen hasi baino lehen gerritik gora biluzteko. Ziurrenik xehetasun horrek erakarri zuen publikoa, emakumeen emantzipazioak baino gehiago.

Lekukoen arabera, duelu-zelaiaren formalitate guztiak zorrotz bete ziren, ohiko adiskidetze saiakera eta ondorengo errefusatzea barne. Bi damek borrokari ekin zioten eta, atzera-aurrera ibili ondoren, printzesaren mugimendu bortitz batek kondesa sudurretik odoletan utzi zuen (deluaren irabazlearen berri iritsi ez zaigun arren, Pauline Metternichek behar



Emile Bayard-en margoetan oinarritutako estereografiak, gerritik gora biluzik dauden emakumeak dueluan irudikatzen dituztenak.

R.K. BONINE

luke garaile izan, arerioari odola isurarazi zion lehena izan baitzen). Eragindako kalteak hunkituta, Metternich printzesak ezpata askatu zuen eta eskuak aurpegi-raman zituen. Une hori baliatu zuen Kielmannseggek oldartu eta printzesari eskuineko besaurrean ebakia egiteko. Odola ikusita bien ordezkioak zorabiatu omen ziren. Inguruan zeuden gizonezko zaldizain eta lekaioei agindu zieten distantzia jakin batera geratzeko eta dueluari ez begiratzeko. Baina emakumeen aieneak entzunda, haiengana hurbildu ziren laguntza emateko prest. Lubinska baroisari iruditu zitzaion gizonezko mirabeek bestelako intentzioak zituztela eta aterkiarekin eraso zien, "ez begiratu, ez begiratu, zerri lizun halakoak!".

Emakume haiek ez zituzten bularrak erakutsi inoren begirada erakartzeko. Ezta haien soineko garestiak ez zikintzeko edo urratzeko ere. Garai hartan emakume medikuak ez ziren ohikoak, baina Lubinskak sendagile titulua zeukan eta, horrez gain, gudu-zelaietan zaurituta-koak artatzen esperientzia ere bai. Ehun arrastoek zaurietan infekzio arriskua areagotzen zuela ederki zekien eta lehiakideen osasuna zaintzeko agindu zuen neurria.

Beraz, arrazoi ona zuten gerritik gorako arropak kentzeko. Ez hain ona duelua bera deitzeko: dirudienez, antolatzen ari ziren musika emanaldi baterako lore-apaindurek eragin zuten bi emakumeon arteko desadostasuna. ■



Animalia errepublikazaleak

Animaliek hildako errege-erreginen zerrenda Egipton gogoz betetzen hasi ziren: lehen faraoia, Narmer, hipopotamo batek aurretik eramanda hil zen K.a. 3000 urte inguruan, Sexto Julio Afrikano historialariaren arabera; haren ondorengo Aha faraoia ere hipopotamoak ehizatzen ari zela hil zuen ugaztun horietako batek. Kleopatra erreginak bere burua hil

zuen, baina teknikoki animalia bat, aspisa, erabili zuen horretarako. Gertuago, VIII. mendean Asturiasen ez zegoen hipopotamorik ez aspisik, baina bai nahi adina hartz; horietako batek Favila erregea hil zuen. Eta berrikiago, Alexander I.a Greziakoa (argazkian) jauregiko lorategietan zeukan tximu batek kosk eginda zendu zen 1920an. ■



HAUTATZEN DAKITENENTZAT

ARGIA komunitateko kide bazara
eta eskatua baduzu, etxean
jasoko duzu.

Gainerakoentzat,

9,95€

Eskura ezazu!



Hobe nuela ezkondu

Gurasoek lehen, gaur egun bezala funtsean *Amama* filma aintzat hartzen baldin badugu, sortzen zitzaizkien haur bakoitzaren destinoa zedarritzen zuten: bata etxeko zen, neska ala mutila izan, bestea elizarako, gainerakoak armadan sartzerara eta lurralde urrunetan edo auzoan finkatzera deituak ziren. Gaur aipatuko dugun euskalduna fraide bilakatzekoa zen baina bidean xedeak aldatu zitzaizkion: amodioaren indarra!



Itxaro Borda

IRUDIA: AINARA AZPIAZU "AXPI"



Bertsioen arabera *Txiki txikitik* edo *Gazte gaztetik* hitzekin abiatzen den kantaren hitzak, XX. mende hasmentan bildu zituen Azkuek Baztanen, *Euskal Kantutegi Herrikoia* osatuz. Miguel Es-teban Gortariren ahotik jaso zuen melodia. 1940ko urteetan zehar, Aita Donostiak ere Azkaineko Putxuko baserriko Agustin Lakarrari bertso sarkor pare bat entzun zizkion.

Kopla eder eta alaitsu hauetan mintzo den mutikoa adinaren florian igorri zuten etxekoek Salamancara apez edo fraide ikasketak burutzera, hala baitzuten nonbratu edo erabaki, menturaz familia kontseilu baten ondotik. Euskal Herri-tik, Baztan edo Xareta eskualdeetatik, Salamancarainoko errepidea luzea zitekeen. Imajinatzen ahal ditugu gazte zainartak saldoan, bidean kantari, zirtolari eta bertsolari. Kezka gehiegirik gabe alabaina.

*Gazte gaztetik aitak ta amak
fraile ninduten nonbratu
bai eta ere estudiora
Salamancara bialdu.*

Euskal Herriko apez eta fraide askok puntako teologia ikasketak egiten zizuten Espainiako Gaztela eta Leon eskualdeko hiriburuan. Orain ere, Duero ibaiak zeharkatzen duen lekua distiratsua da. Erromatarren denboran garatu zen Salamanca eta fama handikoa bihurtu 1218an, Leongo Alfonso IX.ak Salamancako Estudio Orokorra bataiatuturiko unibertsitatea sortu zuenean. Ikasketa humanistak egiten ziren bertan, Erasmoren filosofiaren ildotik. Kanta batek euskaldunak ere hara zuzentzen zirela erakusten digu, baina etengabeko zidor horretan zernahi gerta zitekeen:

*Salamancara nindoalarik
bidean nuen pentsatu
estudiante tunante baino
hobe nuela ezkondu.*

Erdi Arotik gaur arte estudianteeek besta egitea maite dute. Musika banda edo taldeetan ibiltzen ziren, “tunante” hitzak gainera gaztelaniaz iruzurgile pikaro ideia bat dakarrela. Ikasleak ez ziren prestuak, isilak, umilak, serioak, alderantziz baino. Beste euskaldun handi batek halaber galtza zolak higatu zituen Salamancako unibertsitateko jargietan: Urdazubiko Pedro de Azpilkueta, alias Axular, hura baizik ez aipatzeko.

*Ostatu xume polit batean
gosez gelditu bainintzen
neska xarmant bat ari zitzaidan
mahainean zerbitzatzen.*

Ez zitzaion Axularri (1556-1664) autofikzioa bertsotan harilkatzen duen gure pertsonaiari bezalakorik gertatu. Ez zen bideko ostatu xume batean aterpetu eta ez zituen ikasketak abandonatu begi ezti pare batengatik. Urdazubiko Agustinoen komentuko teologia kurtsoak sakondu zituen, are gehiago Salamancako Harpean deabruarekin tratua izenpetuz, odola zeriola, sineste herrikoia aintzat hartzen baldin badugu bederen. Handia baitzen Euskal Herriko Fausto berezi honen jakintza, jendeen fantasma guztien iturri. Cervantesek ere aipatu zuen *La Cueva de Salamanca* horren magia.

Sarako erretoreak 1643an euskarazko literaturaren xendra indartuko zuen, *Gero* gogoeta bilduma plazaratu zuela Bordeleko Etxauz apezpikuaren baimenarekin. Irakurtzen denean oraindik ere, plazer ironikoz beti, XVI. mendeko

erudizioaren neurria ageri da euskararen aniztasun bizitore lizunaz gain. Pentsatzekoa da saratarrak loriatzen zitezkeela igandeetako predikuak entzuten, adibide distiratsuak, erreferentzia kultuak, latinetik eta greziarretik itzuli oharrak bata bestearen atzetik isurtzean intsentsu usain artean.

Deabruarekin tratua egin baina ez zituen dastatu bertsolaria zoratu zuten gorputz traka eta era liluragarriak.

*Begia kartsu, ezpaina lore,
enekin aise mintzatzen
aingeru hori ordu berean
ene bihotz barnean zen.*

Antza denez estudiantea berehala maitemindu zen tabernako zerbitzariak. Neska ederraren irudia ematen digu hitz zehatzetan. Alegera, irri argi eta poz naturalaren jabe imajinatzen dugu. Bertso hauek arinak dira, baikorrak, atseginez troxatuak, abesteko eta memorizatzeko errazak. Bere etorkizunari uko egiten zion gazteak, gazura gazta baino lehen saldu zuen: harentzat soak gurutzatu orduko bikotea osatua zen, neskak bere ikusmoldea eman beharrik gabe.

*Hitz erdi batez maite nuela
erran nion belarrira
baina, gaixoa, herabetua
ihes joan zen kanpora!*

Gizon gazteak amodioa salatu zionean, horrela banpez, elkar ezagutzearen zero gradutik abiatuz, andere xarmanta izutu zen, Axularren behialako deabru zitala ikusi bailuen. Badakigu jagoitik ez dela zaila norbaiti maitasunaren aitortzea, gero direla arazoak sortzen eta garatzen. Eta gerotik gerora



Arabako kazetaritza euskalduna babesteko...

jar ezazu zure alea, jaso ezazu zure alea

www.alea.eus/harpidetzak

ibiltzean galtzen dugun denboraz poesia, bertso, ipuin eta nobela sarkorrak ekoiztu dira.

Amodioaren eta zalantzaaren arteko jokoaren buruan Baztan, Urdazubi edo Sara aldeko fraidegaiak egundoko zaflakoa bildu zuen: neska beldurtu eta ihesi joan zen amainatzaile ausarta ahoa bete hortz abandonatuz:

*Ez ahal nauzu, izar ederra,
kondenatzen infernura!
Ez da sekula ene gogotik
histuko zure itxura.*

Neskaren ezezko lotsatiaren aitzinean mutilari oinarritzko sinesteetara itzulzeko aukera baizik ez zitzaion gelditu: aita jainkoa edo jaun zerukoa hor daude bihotz hautsien gozatzeko. San Pedro giltzariaren lekuan ikusten du bere burua:

*Aita jainkoak egin banindu
zeruetako giltzari
orduante bai jakinen nuen
atea nori ireki.*

Liburu sakratuetako iruditegia erabiltzen du hemen paradisia amestu ondoan, begirada soilaz infernura kondenatua izan denak. Infernua, purgatorioa eta paradisia kontzeptuak XIV. mendean finkatu ziren Benedikto XII.a Aita Sainduaren manuz eta Dante handiaren idatziz. Teologia ikastera zihoan euskaldunak heriotik lekorako aro ezberdinen banaketa zein zen bazekien, hala nola ziren predikuak entzuten zituzten herriar gehienak.

XVII. gizaldian Euskal Herrian, oro barneratuak zituzten Erdi Aro berantiarreko agerpen horiek, beste leku askotan bezala erroto abade etxe anitzetan

ikasten zuten etxeko jaunen semeek. Erasmo eta Akinoko Tomasek gainera dispositibo horretan finkatua zuten bizidunaren lekua. 1250eko Letrango Kontzilioak marrazturiko familiaren osaketa teologikoaren eredua sartua zen jendeetan: gizon bat (Josef), emazte bat (Maria) eta haur bat (Jesus), hori zen garai haietako sendia. Modeloak gaur arte iraun du, 2013an sexu bereko ezkontza eztabaidatu zenean Euskal Herrian bertan kalapita ozenak hazteraino.

Estudiante tunante izateko xedea bidean utzi zuen gazteak argi zeukan halatan zeruko ateak nori eta zein ordenean zabalduko zizkion:

*Lehenengo aitari, gero amari
gero anai-arrebari,
ta azken orduan isil-isilik
nire maite politari.*

Ez zuen familiaren funtsa sakrifikatu-koto hala ere bihotza sekretuan inarros-ten zion ostatu polit hartako zerbitzari herabeari lehentasuna emateko. Paradisuaren saria zen.

Talde eta txaranga askok eskaintzen duten arren, Amaia Zubiriak eta Txomin Artolak *Folk-Lore-Sorta-1* diskoan egin zuten abesti horren bertsio eder bat, akordeoiak bozak zurkaizten zituela eta hitzen mamiak dakarren alegrantzia zuku guztia ateratzea lortuz. 1991n plazaratu zuten Elkar etxean. Ez da atzo bezperakoa. Ohartzen gara ez duela zimur bakar bat ere hartu.

Aditzen duenari, bizitzeko poza oparitzen dio kanta, bai eta ahoak eman ahala hitzak hitzen ondotik bihikatzen dabilenari. Amek haurrei xuxurlatzen diete, maiteek elkarri, bakartuek beraien buruei etsipena uxatuz.

» Liburu sakratuetako iruditegia erabiltzen du paradisia amestu ondoan, begirada soilaz infernura kondenatua izan denak. Infernua, purgatorioa eta paradisia kontzeptuak XIV. mendean finkatu ziren Benedikto XII.a Aita Sainduaren manuz eta Dante handiaren idatziz

» 1250eko Letrango Kontzilioak marrazturiko familiaren osaketa teologikoaren eredua sartua zen jendeetan: gizon bat (Josef), emazte bat (Maria) eta haur bat (Jesus), hori zen garai haietako sendia. Modeloak gaur arte iraun du

Mutikoak neskaren ihesarekin kolpea jasan zuen baina aitzina jarraitzea zego-kion. Salamancara apezteko. Edo aurkituko zuen aurreneko hirira, han bere egunerokoa errotzeko, elizetatik urrun eta balizko amodio iturriei hurbil. ■

Zure jendea, zure
hedabidea, zure iragarkia:

JARRI PUBLIZITATEA HEMEN

943 371545 • publiz@argia.eus • www.argia.eus/tarifak

ARGIA

O.J. SIMPSON AUZIA TELESAIL ETAN

AEBetako beltz zurienari buruzko maisulana

Azkenaldian telebistarako egin diren ekoizpenen artean zeresan handia eman dute O.J. Simpsonen kasua ardatz duten bi telesailak. Kasu ezaguna AEBetako gizartearen erretratu gordina egiteko baliatu dute.



Gaizka Izagirre
@Gaizka_Izagirre

Gertakari garrantzitsu ugari ematen ari ziren telebistan, baina jendeari bost axola, begirada guztiak AEBetako erre-pideak zeharkatzen ari zen Ford Bronco zuri batean jarriak baitzeuden. 95 milioi estatubatuar bilakatu ziren ihesaldi etsigarriaren lekuko. Auto horren barruan zihoan tipoa hain zen ezaguna, poliziak borondatez entregatzeko eskatu zion eta nazioarteko telebista kate gehienek ehunka ordu inbertitu zituzten kasuari jarraipena egiteko. Bai, O.J. Simpsonen kasuaz ari naiz eta konkretuki ESPN kateak ekoizturiko *O.J.: Made in America* telesail dokumental bikainaz.

Hasiera batean, *O.J.: Made in America* izan behar zuen telesail dokumental bat, zeinak aztertzen zuen azken urteetan AEBetako pertsonaia ezagun eta mediatikoaren ibilbidea, *Making a Murderer* ekoizpen harrigarriaren uharra jarraituz eta sekulako material mordoa erabiliz. “Hasiera batean” diot, garai hartako amerikar futbol jokalaria onenaren bizitzaren errepasoa izan behar

zuenak amaitu duelako izaten analisi argigarri eta sakon bat Ipar Amerikan arrazismoaren gai lazgarriari buruz. Eta batez ere, ikerketa ikaragarria, O.J. pertsonaiaren inguruan ziren arazo horien guztiena.

Bost ataletan, O.J.-ren gorakada ikusteko aukera izango duzue, izar bihurtu zen arte; eta batez ere, izan zuen errialdi ikaragarriari buruzko errepaso sakona ikustekoa. Nola ikasi zuen gazte afroamerikarrak bere mitoa eraikitzen futbol unibertsitarioan eta profesionalean; irudi hori mugaraino promozionatzen ikasi ere, AEBetako “beltz zuriena” bilakatu zen arte. Eta nola, bere emazte ohiaren hilketaren gauetik aurrera, amets hori betiko suntsitu z(u)en. Hain erreala eta gordina, Hollywooden gidolari onenaren burutik irtendako istorio baten aurrean zaudetela sentituko duzuen. Dokumentala ez baita epaiketari eta adibide zehatz horretan soilik zentratzen, garai hartako testuinguruan kokatzen gaitu, Ipar Amerikak bizi izan zituen une latzak mahai gainean jartzen

» AEBetako gizartearen azken 50 urteetako kezka ia guztiak biltzen dituen azterketa ikaragarria da *O.J.: Made in America*

» “Mendeko epaiketa” deitu zioten, baina gehiegizkoa zirudien. 20 urte geroago, eta lan hau ikusi ostean, eufemismoa dirudi

» Kasu bera ardatz duen *American Crime Story* ere iaz estreinatu zen



ditu, adibide zehatz honekin talkan: aipaturiko arrazismoa, basakeria poliziala, aberastasuna eta pribilegioak, etxeko indarkeria, komunikabideen eboluzioa, erlijioa... Azken finean, *O.J.: Made in America* bilakatu da gizarte estatubatuarra azken 50 urteetan kezkatu duen ia guztia 8 orduko azterketa ikargarria.

Teknikoki aparta, ezin hobe, “gutxi-ekin asko” filosofia ardatz duena. Handikeriarik gabe eta birsortze konplikaturik txertatu gabe, narrazio nagusia batik bat artxibo irudiek eramaten dute aurrera, baita elkarrizketatuen testigantzek ere –70etik gora jaso dituzte, gertakariak ahalik eta detaile handienekin dokumentatze aldera-. Irudien bilketa, sailkapena eta egindako muntaia lana ahozabalik geratzeko modukoa da. Lehen bi atalak geldoagoak diren arren, ezinbestekoak iruditu zaizkit, gu ikusle bezala istorioan patxadaz kokatzeko, gure garuna informazio garrantzitsuz bete eta hirugarren ataletik aurrera –epaiketa prozesua hasten den unea-, datu horiekin xehetasun guztiak

azken zirrikituraino ulertzeko. 1995 urtean “mendeko epaiketa” zela esaten zutenean gehiegizkoa zirudien. 20 urte geroago eta lan hau ikusi ostean, eufemismoa dirudi.

Gertakari berak ardatz hartuta, *American Crime Story* telesail bikaina ere estreinatu zuten iaz. Pentsa dezakezue bi ekoizpenak egiazko gertaeratik denboran hain gertu izateak haien aurka

jo dezakeela eta ez gaituztela harrituko sorpresa eragin beharko luketen hainbat gertaerak edo datuk. Utikan aurreiritziok. Bietan, O.J. Simpson ia gutxienekoa dela esango nuke, gizakiari eta krimenari buruzko erradiografia apartak baitira, sakontasunean aztertuta gainera. 2017an gertatzen ari dena ikusita, badirudi AEBetako gizarteak oraindik ez duela lezioa ikasi. ■

jan baserritik

20491 Leaburu · ☎ 943 670 724
www.mahalanaturala.com

ogiaren egia

Galparsoro
OKINDEGIA

Ogi biologikoak
 Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
 Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Gure gerren polifonia bizia



Amaia Serrano Mariezkurrena



Poliedroaren hostoak

JOAN MARI IRIGOIEN

Erein, 1983.

Joan Mari Irigoienek 80ko hamarkadaren hasieran argitaratutako obra honek 1995eko edizio berrituari esker izan du oihartzuna, batik bat. Alta, hemen jatorrizkoari helduko diogu, idatzaldi haren testuinguruak (Trantsizioaren hasiera eta euskal eleberrigintza modernoaren tradizio laburra) eta egiten duen proposamen literario ausartak merezi dutela iruditzen zaigulako.

Karlismotik Trantsizioaren hasiera arteko euskaldunen memoria kolektiboaren narrazioa egiten da obra honetan. Hala ere, ez da ohiko kontaketa historiko-kronologikoa, errealismo hutsez harago, surrealismotik, errealismo magikotik eta abarretatik edaten baitu. Garai historiko bakoitza teknika narratibo baten bidez irudikatzen du, hainbat testu literarioi (batez ere mexikar literaturari) eta erlijiosori eginiko keinuez eta mundu sinboliko joriaz horniturik.

Mundu-ikuskera oso ezberdina duten pertsonaiez josia da obra. Hasierako sinpletasuna eta dualismoa, konplexutasun eta aberastasun bilakatuz doaz. Badago epistemologia platonikoari heltzen dion pertsonaiarik, baina bada egia eta errealitatea hautemateko ezintasuna agerian uzten duenik ere. Ideologia politikoei dagokienez, karlismo garaiko pertsonaiak, liberal nahiz karlista, oso markatuak dira. Haatik, bitasun hori II. Errepublikan zehar urtzen hasten da, posizio politiko ugari loratu eta anarkistak edo sozialistak agertzeraino. 1936ko Gerraren ondoren belaunaldi galduaren eta konprometituaren arteko tentsioetan jartzen du fokua. Lehenak, jarauntsi politikoa saihesteko, euskalduntasunik gabe heziak dira; aldiz, bigarrenak konpromiso

pisua sentitzen dute. Bien mugek eta zamek bizitza bera zalantzan jartzera daramatzate, azkenean eztanda egiten duen arte.

Pertsonaiek sortzen duten narrazio koralaz gain, denboraren kontzeptualizazioa da eleberraren gakoetako bat. Denbora eternala, etena, ziklikoa edo kronologikoa izan daiteke, eta batetik besterako jauziek erakusten dute hasierako poemak iradokitzen duena: denbora ez da soilik erlojuak markatzen duena.

Ildo horri jarraitzen dio eleberraren egitura ziklikoak, bai gerrak bata bestearen atzetik kontatzen direlako, bai sarrera eta amaiera hildakoen ahotsek harilkatzen dutelako, Trantsizioaren historia aldatzen duen mendeku poetiko batekin, gainera.

Nobela mardula, sendoa eta erreferentziaz betea da, pasarte antologikoak dituen eta euskaldunon gatazken pitzadurak azaleratzen dituen; alabaina, teknika batzuk errepikatzen ditu, eta errealitatearen ikuspegi poliedrikoa besarkatzeko saiakeran luze jotzen du. Lan anbiziotsuegia akaso, baina, euskal eleberraren historian esanguratsua, joera literario berrien ildoetatik eraikia. ■



"Poliedroaren hostoak"
Joan Mari Irigoien
(Altza, 1948) idazlearen
bigarren nobela izan zen.

» **TELEGRAMA**

Udaberriarekin batera, martxoaren 7an hasi zen Bilbon **Loraldia festibala** eta apirilaren 8ra arte ehunka kultur saio eskainiko ditu, %100 euskaraz **STOP Izaki Gardenak** eta **Erraiak** taldeek kontzertua eskainiko dute Oiartzungo Pagoa aretoan martxoaren 10ean: ez galdu aukera! **STOP Gernikako Lekuek** festibala ere hementxe dugu: martxoaren 11n hasita Bizkaiko herriko puntu ugarian kontzertuak antolatu dituzte, kartel ezinhobearekin. Baina hori ez da dena: zine-kluba, tailerrak, erakusketak... Eskaintza faltagatik behintzat ez zara etxean geratuko **STOP**

» **DISKOA****Passepartout**

PASSEPARTOUT

Autoekoizpena, 2016

Itzi Beitia, Jontxu Ape, Ruben Lizarralde, Tomas Lizarazu eta Xabi Arrieta, Passepartout azkoitiar taldekideak.



Luzaroan aritzeko gogoarekin



Montse Auzmendi

Passepartout Azkoitiko taldeak bost kanta grabatu ditu eta Interneteko Bandcamp plataforman jarri ditu (passepartout.bandcamp.com) doan deskargatzeko moduan. Ez da denbora asko taldea sortu zela, urtebete inguru, eta bost kantu hauek grabatu dituzten lehenak dira. Azpeitiko 2Noisy estudioan aritu dira.

Itzi Beitia (teklatuak), Jontxu Ape (baxua), Ruben Lizarralde (gitarra), Tomas Lizarazu (gitarra eta ahotsa) eta Xabi Arrieta (bateria) taldekideek entseatzeko lokalean ordu asko egin dituztela nabari da, kantuak arretaz lantzen, mol-

daketak egiten eta erritmoak, doinuak eta leloak fintzen.

Kantuetan melodia politikak entzun daitezke. Erritmo aldaketak egiten dituzte eta ongi uztartzen dituzte lasaiak diren giroak eta indartsuagoak diren beste batzuk, baina intentsitatea mantendu egiten dute.

Beren kezken eta sentipenen berri jakinarazten dute kantuen bidez: "Atzetik aurrera irakurtzen ditut liburuak, eragozpenak utzirik dauzkat lurperatuta" (*Atzetik aurrera*), "Planeta txiki honetan oinutsik geratu gara sabel-zulo bakoitzean" (*Belatz*), "Guk eraikitzen jarraitu nahi dugu sekula norantza ahaztu gabe" (*Halley 62*), "Ezinaren besoetan aurkitzen garen hontan ezinaren besoetan izenik ez da behar" (*Oskarbi*); "Bukatu hasi duzun mundua, ez utzi margoak besteen esku, erakutsi didazun guztia nirea balitz maiteko ninduzun" (*Bazterretan zehar*).

Heldu berriak dira, baina luzaroan aritzeko gogoarekin. Taldekideek ongi ulertzen dute elkar, eta argi daukate zer egin nahi duten eta nola. Hori suma daiteke bost kantu hauek entzuterakoan eta beren jendaurreko emanaldi batean egonez gero. Jendaurrean jotzen dutenean grina eta kemen handiarekin aritzen dira, beren kantuak jotzen ederki pasatzen dutela argi ikus daiteke, barruan duten guztia ematen, eta hori guztia transmititu egiten dute. ■

Espazio aske bat



Iñaki Etxeleku

Igande goiz eguzkitsu eta goxoa zen, aurtengo Zaldun Ihaute eguna, joan den otsailaren 26a, Baxenabarreko hiri nagusian. Kabalkadak, merkatu estaliko plaza hartzen du urratsean eta ikuslea hurbiltzen da nagiki. Laster, osatu da zirkulua, jokorako espazio iduriz naturala. Sartu da lehen zirtzila eta zart! lehen begi kolpean hor da antzerki irudia. Berehala, irria eta ikuslearen irudimena dantzan jartzen duena. Ilezko jaka luze bat, palmak zangoetan eta sudurraren egiteko galtzerdi bat zintzilik. *Pirinioetako Desmana*, sator sudur luzea sartu zaigu eta gaian gara. “Euskal mendiaz” Eskualdeko Natur Parke bat egin nahi dute, turismoa garatzeko. Sator sudur luze umeak bere lehen urratsak egiten ditu alhapideetan eta hara non, erdiz erdi heldu zaizkion urrats handiz lasterka bi *trailer* edo mendi lasterkari, animaliatxo lehertzeaz baitute. Irudi gutxitan, dena errana da. Galtzerdi bat, palmak eta zirtzilaren gorpuzte joko, herri arte-drama horren magia piztua da, horren gose zen ikuslearen gozamenarako. Odin Teatretoko zuzendari Eugenio Barbak bere antzezlan baten aurkezpenean Jerzy Grotowski eta Ludwik Flaszenekin urteak lehenago eraman lanaz hala zioen: “Ikuslearekin eskuzabalak ziren ikuskizunak ziren, formetan aberatsak, ideiaz joriak, erotismo batekin, ahots eta gorputzen edertasun handiarekin:



MAIA IRIBARNE

antzerki pobre bat”. Antzerki pobrea edo pobre antzerkia, funtsean, deus gutirekin baina barne metafora landua duen jokalaria hats eta indarrean apustu egiten duen *artedrama*, Antton Lukuk hobetsi hitza berriz hartuz.

Tokiko ala zabalago, gai orotarik bazuten aurtengo Garaziko zirtzilaren sei joko zatiek. Elizako sexu abusua; Mauleko abere hiltegia; mediku batzuek emazteen bularreko minbiziaren aurkako eguentzat muntatu komunikazio kanpaina guztiz patriarkala; eskola publikoko bizpahiru buraso jakobinok euskarazko murgiltze ereduaren aurka azpiz muntatu jukutria; jokoan ari diren zirtzilek bere osatu Garaziko gaztetxezko gazteak, eguna ostatuko terrazan iragaten, den mendreneko xede bat agertu orduko hasi gabe nekatuak direnak: autoderisioa.

“Bakearen *artixotak*” ere ekarri zituzten joko eremu erdira. Orburuaren frantseseko hitza, *artisan* hitzarekin jokoan aritzeko paradaz baliaturik. Txetx, estrategia guztia pentsatua zuena, operazio guztiaren manatzaille lanetan; Beak “deus ez daki! deus ez daki!”. “Berhoko”, barnealdeko laborari herrikoi, sindikatu, fededuna, egin lanaren ordainez Euskal Elkargo berrian EHLGrentzat leku eske. Autoderisioa, hor ere.

Arte-drama horren indarra horretan da, ere: guhaurren buruaz irri egiteko ematen digun paradan. Urteak ekarri

gertakarien aitzinean denek azpi-entzun dutena baina erran gabe utzi, hor, jokoan gorpuztuz, irrirako eta antzerkirako langai paregabea da.

Garaziko Libertimendua zirtzil eskola bezala ikus daiteke. Aurtengo zirtzil taldeak bazuen krepatutik behar zena, espazioaren kudeatzeko gaitasuna, jokorako hats handia, antzerki irudi parrasta, ikusleari kausitzeko gorputz eta ahots indarra. Hitz batez: mitxa.

Ausarta zen eta freskagarria. Denek, adostasunik handienezan ildo beretik joan behar dugula iduri lukeen garai hauetan, ahots kitzikatzaile baten atzematea neke da. Libertimendua hats hartzeko leku horietarik bat da izpiritu kritikoa kilikatzea laketa zaionarentzat. Bere buruaz irri egiteko gai izan nahi duen jendarte baten aldarria. Parte hartzailea, formatzailea da gainera: umeak egin baititu Garazikoak. Amikuzen lehen, Baigorri, Baionan... Makeako kabalkadak ere bazukeen eskola horretarik zerbaixka edanik.

Beti sortzeko mamia dakarren ore herrikoa da libertimendua. Ez, ez da euskal super-produkzio bat; bai, inperfekzioz osatua da; bai, “antzerki pobrea” da. Baina, freskoa da! Libertimendu jarraitzaile bilakatu denak ez ote du hor kausitzen belusezko jarlekuz egin kultura kutxetan hautematen ez duen freskotasuna? ■

Bertso-zopa

Osa ezazu Oihana Bartrak 2015ean Bergaran botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*. Gaia: *Korrikako azken metroetan zoaz Bilbora iristen, jendearen artean korrika*.

Batzuk korrika arineketan
zaharragoak _____
hainbeste jende euskeran alde
_____ ez da egon aurrez.
Nahiz eta Bilbo nahiko _____
dugun gaur egun tamalez
gaur zenbat _____, zenbat pertsona,
zenbat berba, zenbat _____
Nire hiria ez _____ soilik
Guggenheim eta San Mames. (bis)

Guztiak "Ika-ika Korrika"
_____ ai zenbat giro!
Lekukoa be eskuz _____
emekiro-emekiro.
Euskalduntzea hurian doa
aurrera _____ astiro
eta gaurkoa konturatzeak
eman deust _____ bertigo
berez ze _____ eta ze gertu
dauzen Urepel ta Bilbo. (bis)

Berez gaurkoan _____ doguna
dogu benetan itzela
Kilometroak eta _____
gorantza doa nibela.
Gatx dago baina konturatu naz
_____ helmugara _____
_____ txiki bat badaukagu
transmititzeko horrela
ta badakigu oin
gure esku dagoela. (bis)



B	I	T	Z	U	E	R	D	A	L	D	U	N	A	T
A	L	O	R	T	U	B	U	E	L	S	S	V	B	D
R	D	R	R	A	O	B	G	E	T	J	S	T	C	C
E	O	V	N	T	G	E	K	A	A	Z	P	J	S	M
T	M	I	E	F	M	U	G	C	T	I	H	V	P	B
A	A	R	Z	I	K	G	O	A	Z	E	L	A	D	Z
B	E	A	P	O	B	E	P	N	A	P	T	B	O	G
A	D	P	P	A	S	U	T	A	A	R	A	T	H	P
H	I	H	O	A	U	I	O	H	L	A	T	C	N	R
V	R	I	N	H	C	S	L	I	R	K	A	C	A	R
B	A	E	L	N	J	V	U	K	Z	I	R	V	E	C
A	Z	E	U	P	C	O	R	O	B	R	R	M	T	T
E	S	E	B	A	B	J	R	M	I	R	E	I	F	U
P	U	J	O	H	R	D	U	U	O	Z	E	I	J	
I	D	M	J	C	Z	J	N	R	S	K	P	S	V	M
J	M	A	L	D	A	T	U	Z	L	P	I	D	U	I

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									

Ezker-eskuin:

1. Lege baten hausleari ezartzen zaion diru zigor. Gertaera bat jazotzen den eguna.
2. **Argazkiko herria (Lapurdi)**.
3. Euskararen Gaitasun Agiria. "Emaila onak ... ezpainetan".
4. Ahalegindu. Zirkonioaren sinboloa.
5. ... hoc, latinezko lokuzioa. Izaera,



esentzia. 6. Gorabeherak kendu. Erdi, hitz-elkarteetan. 7. Bi talderen arteko kirol norgehiagoka. 8. Garoak, iratzak. Krustazeo mota.

Goitik behera:

1. Eskapada. 2. Ustekabeen egiten den eraso. 3. ... Elorriaga, idazlea. Kupela.
4. Neodimioaren sinboloa. Ar sortzaileak.
5. Lanabes. 6. Sosa. Telebista. 7. Suitzako ibaia. Zikin, lohi. 8. Larruazalak jariatzen duen likido. 9. Tresna.

Sudokua

Erraza

			4		6	3	2	7
6	9				5			1
		7	8	3				
	7			1		5		6
9								2
5		4		7			1	
				8	3	2		
3			1				7	8
2	8	5	6		7			

Zaila

			7		1			
	2						5	
7	5	6						
	3	9			2			5
			4		7			
4			8			9	6	
						4	7	8
	4						1	
			2		6			

Ebazpenak

Batzuk korrika arineketan | zaharragoak **tatarrez** | hainbeste jende euskeran alde | **batera** ez da egon aurrez. | Nahiz eta Bilbo nahiko **erdalduna** | dugun gaur egun tamalez | gaur zenbat **pausu**, zenbat pertsona, zenbat berba, zenbat **babes**. | "Nire hiria ez **dira** soilik | Guggenheim eta San Mames. | Guziak "Ika-ika Korrika" | **esanez** ai zenbat giro! Lekukoa be eskuz **aldatuz** | emekiro-emekiro. | Euskalduntzea hurian doa | aurrera **baina** astiro | eta gaurkoa konturatzeak | eman deust **nahiko** bertigo | berez ze **urrun** eta ze gertu | dauzen Urepel ta Bilbo. | Berez gaurkoan **lortu** doguna | dogu benetan itzela | Kilometroak eta **Korrika** | gorantza doa nibela. | Gatx dago baina konturatu naz | helmugara **gozela** | lekuko txiki bat badaukagu | transmititzeko horrela | ta badakigu oin **boterea** | gure esku dagoela.

3	6	5	2	2	8	7	1	5
9	1	1	2	7	6	5	2	6
8	4	3	4	7	3	2	6	9
2	2	1	7	1	4	7	4	1
2	6	6	5	3	8	8	5	9
1	1	4	9	7	6	7	4	5
8	3	3	1	2	7	7	4	5
4	8	4	6	2	9	9	1	7
7	2	1	6	8	4	3	5	7
3	8	4	3	8	1	6	2	9

2	8	5	6	5	8	7	8	2
3	4	6	1	5	2	6	7	8
7	1	6	9	8	3	2	5	4
5	6	4	2	7	9	8	1	3
9	3	1	5	6	8	7	4	2
8	7	2	3	1	4	5	9	6
5	6	3	8	3	1	9	6	5
6	9	3	7	2	5	4	8	1
1	5	8	4	9	6	3	2	7

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

- Esker-eskuin:** 1. Isun, Data. 2. Hendaia. 3. Ega, Irtia. 4. Saia, Zr. 5. Ad, Izaeta. 6. Lau, Ert. 7. Partidu. 8. Irak, Buia. 9. Aparatu.
- Goitik behera:** 1. Ihesaldi. 2. Sogada. 3. Una, Upa. 4. Nd. 5. Aitzu. 6. Dirua, Th. 7. Aar, Teiu. 8. Izert. 9. Aparatu.

Simona Levi. Kontrakarrean



Aktibista, antzerki zuzendaria, antzerkigilea, ikertzailea eta kultura sendatzailea eta kudeatzailea da Simona Levi (Turin, 1966). Azken hamarkadetan Bartzelonatik aritu da kultura librearen, demokrazia digitalaren alde eta Espainiako Estatuaren ustelkeriaren kontra. Xnet eta 15MpaRato ekimenen sortzailea.

“Sarea da etorkizuneko aktibismo eta demokraziarako bidea”



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JORDI BORRÀS

Ustelak biluzten

“Txikia nintzenetik onkeriatik urruti ikusi dut nire burua. 18 urte nituenan unibertsitatean izena emateko puntuan egon nintzen, eta batxilergoko azken azterketa ezin hobeki egin nuen arren, irakasleek zazpi puntu kendu zizkidaten ‘erakundeenganako begirunerik ez izateagatik’. Sekulako faborea egin zidaten, horri esker utzi bainuen Italia. Bartzelona aukeratu nuen bizitoki, artearen eta aktibismoaren sorlekurik aberatsena baita. Azken hamarkadetan erronkak finkatu eta ase ditut, aurreikusitako epeak beteta. Baina oraindik ere lapur gehiegi dago kartzelan sartzeko eta, beraz, justiziak jarzten dituen traben gainetik, ustelkeria auziak biluzten jarraituko dut lanean”.

Italiarra zara baina 1990etik Bartzelona duzu bizitoki. Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Barkatuko didazu, baina dagoeneko ez naiz italiarra. Berlusconiaren hogeitau urteko monolaborantzak herria suntsitu zuen eta ezingo da berreskuratu. Turin goa naiz eta haurtzaroa baino nerabe-zaroa oso gogorra izan zen han. Fiaten itxierak testuinguru beltza ekarri zuen; esango nuke Bilbok ere bizi izan zuela Turinen antzeko egoera. Toki askotan gertatu zen, hiri industrialak behera joan ziren, enpresetako kaleratze masiboak eteteko antolatzen genituen agerraldiek ez zuten ezertarako balio, eta hori gutxi balitz, heroina gizartearen errailetan sartu zen... Nik frantsesa ikasia nuen eta 18 urte bete bezain agudo Frantziara joan nintzen.


Frantziatik Kataluniara. Zergatik aukeratu zenuen Bartzelona?

Italian aktibista izatea oso gogorra zen. Mafiek eta ustelkeriak ez zioten aktibismoari lekurik uzten. Han borrokatu egiten duzu, baina behin eta berriro porrot eginez. Arazo pertsonalak tar-

teko utzi behar izan nuen Frantzia, eta Bartzelonara etortzea argi izan nuen hasieratik. Hemen borrokak emaitzak ekartzen ditu. Tira, hemengo mugimendu anarkistaz asko irakurri nuen, eta iritsi ahala ikusi nuen hau izango zela nire etxea.

Bartzelonara iritsi eta lau urte geroago sortu zenuen elkarrizketa egiteko proposatu diguzun tokia: Conservas konpainia.

Frantziatik ihes egin nuen nire bikotekideak jipoitu egiten ninduelako. Bartzelonan ez nuen ezer, lagun bakar bat eta aske izateko eta nire proiektu guztiei forma emateko sekulako irrika, hori bai. Ez nuen beste inor ezagutzen eta etxea eta antzezteko tokiak bilatzen ari nintzela, kasualitatez, familiako ondare bat jaso nuen, eta gune hau –Conservas konpainiarena– erostea erabaki nuen. Bi solairu ditu; goian etxebizitza moldatu nuen, eta behean antzerkia egiteko toki. Zazpi urtez bizi izan nintzen hemen. Gutxika-gutxika jendea ezagutzen joan nintzen eta hainbat ziklo antolatzen. Denborarekin erreferentziatzeko espazio bilakatu zen.



"Dagoeneko ez naiz italiarra. Berlusconi hogen urteko monolaborantzak herria suntsitu zuen eta ezingo da berreskuratu".

Artea txikitatik izan duzu bidelagun, eta aktibismoa noiztik?

Oroimena dudanetik, berezkoa dut. Nire familia erabat politizatuta zegoen, eta giro horretan koskortu nintzen. Esate baterako, ni txikitatik atea nintzen arren, eskolan erlijio klaseetara joaten nintzen, nire aldarrikapenak ikasgelara eramateko. Gizajoak nire irakasleak!

Itzul gaitzean Bartzelonara. Noiz eta nola sortu zen XNET?

2006an etxebizitzari buruz egin nuen bideo bat zentsuratu zidaten. Sekulako arrakasta izan zuen eta La Caixak Youtuberi eskatu zion baliorik gabe uzteko. Gertakari hark piztu zidan kultura librearen aldeko borroka egiteko grina. Bizitza aldatu zitzaidan: sarea etorkizuneko aktibismo eta demokraziarako bidea zela argi ikusi nuen. Gogoeta horren ondorioa da XNET. Proiektua gorpuzten lagunduko zidan taldearen bila hasi nintzen. Abiatu genituen ekimenen artean, M15ean bankariak auditatzea proposatu zen, eta Rodrigo Ratoren auzia sekulakoa iruditu zitzaidan. Egutegi bat finkatu eta lanean hasi ginen.

Hainbat ustelkeria auzi azaleratu dituzue, txartel beltzen kasua esaterako. Zein iritzi duzu atera berri den epaiaz?

Sententziak poztu nau baina ez, ordea, badaezpada espetxeratzetik ez izateak. Argi dago etxe onekoek eskuragarri duten pribilegioa dela. Tira, sententziagatik pozik handiena da garai hartan idatzi nuen egutegia betetzen ari dela: 2014an Ratok prestigioa galduko zuela aurreikusi nuen, eta bete egin zen; eta 2017an kartzela zigorra aurreikusi nuen, eta hori ere bete da. Pozik gaude egiaztatu dugulako borrokatzea merezi duela, eta argitaratu zuen hedabideak gure lana gutxiesteko joera duen arren, gu izan garelako auzi hori kaleratu dugunak.

Epaia betekoa da? Urdangarinen sententziak sei urteko kartzela zigorra eman zuen arren libratu egingo da...

Epaia oso tranpatia da. Urdangarinen egun berean atera zen gainontzeko ustelkeriak estaltzeko, eta fiskalak kanpoan utzi zituen guk aurkitu genituen hainbat delitu. Beraz, irekita dago eta baliteke prozesu honen amaieran ere absoluzioa egotea. Egoera onartzen dugu eta lanean jarraituko dugu, azken egunera arte, inposatu

nahi duten kontakizuna gizartean zabaltzea ekiditeko.

Partido X alderdiko bigarren izan zinen 2014ko Europako hauteskundeetarako zerrendetan. Nola bizi izan zenuen?

Telebistak sekulako indarra du, eta Podemosek telebistaren babesa zuen bere alde. Estrategia ona izan zen baina kontuz, sekula izan ez duten espazio bat lapurtu dute. Podemoseko inor ez zen M15ean egon; %10 jende ona da, baina gainontzeko guztiak gizarte mugimenduetan begi onez ikusten ez dituzten kideak dira. Tira, gu hauteskunde legean sinesteagatik xaloak izan ginen. Baina oso pozik gaude esperimentuarekin, asko ikasi baikenuen.

Zertan da orain Partido X?

Ez dugu hauteskundeetara berriz aurkezteko asmorik, baina alderdia bizirik dago. Gure erronka da egitura aldaketen eredu izatea. Izan ere, alderdien egiturak politikariak norberekeriara bideratzeko prestatuta daude. Horregatik izan ginen anonimoak zerrenda aurkeztera behartu gintuzten arte. Lanean jarraituko dugu, etorkizuneko demokraziak behar duen eredu hori bizirik mantentzeko. ■



Espainia fatxaz beterik dagoela deskubritu du ETBko programa batek

Notiziak harridura eragin du Espainiako iritzi publikoan, baina behin sustoa pasata, kiroltasunez onartu du ia mundu guztiak *Euskalduna naiz, eta zu?* ikerketareportajeak argitutako egia. “Bai, onartu behar dugu, 40 urte iraun zuen diktadura bat bizi izan dugu eta, ondorengo erregimenak ere, agian, gauzatzu batzuetan huts egin du: torturatxo batzuk, gerra zikintxo bat, ustelkeria pittin bat, inork bozkatu gabe eskubide sozialak pikutara bota dituzten aginta-



Espainiar arrunt bat taxi bati gelditzeko esanez

riak, eta, behin hori eginda, haiei botoa ematen jarraitu duten milaka herritar... Ez dakit nola ez ginen konturatu gure bizilagunak pixka bat eskuinekoak zirela”, idatzi du *El País* egunkariko zutabe batean Juan Cruzcampo kazetariak. Estereotiporik ez sortzeko eskatu du, ordea: “Orain etarra harrijasotzaile ton-ton horien telebistak gauza horiek esan dituelako ez gara eroriko txokokerietan: denok gara espainiarrak eta, beraz, uni-bertsalak ez ezik, intergalaktikoak”.

AZKEN ORDUKOA: Leloak aldatzeko castinga deitu du Hazte Oír-ek

“Ez zaizkizue gure leloak gustatzen? Ederto ba, Jainkoaren laguntzaz zuzendaritza talde osoa aldatuko dugu”, adierazi du Hazte Oír fundazioak agiri batean. Hala, “Zakila bazara, ez zara alua, eta alua bazara Hazte Oír-ekoa izan zaitezke” kanpaina martxan jarri dute, bihotz oneko jendea erakundean parte hartzera animatzeko. “Hankartean dutenaz zalantzati dabiltzanak ere besoak zabalik hartuko ditugu, geuk erakutsiko diegu-eta egia bidea”, gay-tu dute. Ui, barkatu...

Autobus berriturako diseinu batzuk prestatu dituzte. Hau da abortatu dutenetako bat, apaizek ez dituztelako bereizten neskak eta mutilak.



SAREAN ARRANTZATUA

Jokozaleen ametssetako gosaria



Hanka tartearekin obsesionatuta





**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

**Eman eta jaso
nahi duzun neurrian**

argia.eus/eginargiakoa



ARGIA MOZALIK GABE



Indartu dezagun indartzen gaituena

www.argia.eus/eginargiako